

Prestazio soziala ahultzeak gizarte haustura dakar



Kontzertuak:
Emakumeen presentziazatik
ikuspegi feministara

Anna Gabriel Sabaté (CUP):
"Antolatutako jendea ordezkatzeko dugu
instituzioetan, ez beste inor"

Bikote berdinzaileen kontraesanak



NAFARRAREN EGUNA 2015



BAIGORRI

APIRILAREN 26A

BIXOKO



berria



argia

IPAR EUSKAL
HERRIKO
HITZA

WWW.BASAZEA.COM



Azaleko argazkia:
MATIAS KARRILLO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Harpidetza bereziak: hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko apirilaren 19a, 2.457. zenbakia

ASTEKO GAIA

GIZARTE POLITIKA Prebentzio neurrien premia.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

JULIO SOTO: «Euskararentzat ia hil ala biziko kontua da aldaketa politikoa Nafarroan». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

BIKOTEAK Harreman berdinzaleetan ere jokabide guztiak ez dira parekideak. MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 15

IRITZIAREN LEIHOA

FEMINIZIDIOA JUNE FERNÁNDEZ / 18

MUGETAN GALDEZ INMA ERREA / 20

MERKATARITZA ASKEA, NORENTZAT?

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Duintasun kapilarra. EDU ZELAIETA / 20

ERDIKO KAIERA

PAREKIDETASUNA MUSIKAN Oholtzako haragietatik harago. DANELE SARRIUGARTE MOCHALES / 22

KORTXOENEA GAZTETXEA Laborategi (bio)politikoa dokumentatzen. LIDE HERNANDO / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA / 28

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 29

IHESI KURTZETXIKI Handik goitik Arrasate baino gehiago ikusten da. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 30

ALEA Bilbon erretzear den kulturaldia.

ITZIAR UGARTE IRIZAR / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 37

TERMOMETROA

ANNA GABRIEL SABATÉ: «Independentzia soilik izango da posible CIU gabe». AXIER LOPEZ RODRIGUEZ / 38

DONOSTIAKO EUSKARA PLANA Hiria auzorik auzo euskalduntzen. MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 42

JUAN HERNANDEZ ZUBIZARRETA: «Inpunitatearen arkitekturaren beste katebegi bat da TTIP». UNAI BREA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Nork hil zuen Dag Hammarskjöld NBERen burua? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Prebentzio neurrien premia

Javier Marotok, iruzurra argudio eta etorkinak jomuga, iritzi publikora ekarri du Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta eta zalantzan jarri du haren funtzionamendua. Babes sozialerako tresna garrantzitsu honen ezaugarriak aztertu ditugu, baita gizarte politikaren beste hanka nagusiaren argi-ilunak ere: gizarte zerbitzuak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

POLITIKA SOZIALEN kalitatea, estaldura eta zerbitzuen azkartasuna orokorrean ona da EAEn, antzerakoa Ipar Euskal Herrian eta okerragoa Nafarroan, baina Espainiakoa baino nabarmen hobea hala ere. Garapen maila antzekoa duten herrialde europarrek konparatuta, ordea, hobegarria da gure egoera. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) da babes sozialerako Eusko Jaurlaritzak duen tresna nagusia: beharra dutenentzako prestazio ekonomikoa. DBE eskubide subjektiboa den heinean, errenta bermatzera bideratzen den dirua eskaeraren –beharra dutenen– arabera da, ez da diru-partida mugatu bat. Jende bat pobrezia-ateratzeko eta beste jende baten pobrezia arintzeko erreminta eraginkorra izaten ari dela diote datuek eta bereziki pobrezia mugan daudenei laguntzeko balio du, Felix Arrieta Gizarte Laneko irakasleak gogoratu duenez: “Adibidez, pentsio oso baxuak dituztenei (alargunak normalean) pentsioa osatzen laguntzen die, eta denbora luzez langabezia dirautenak ere babesten ditu”. Azken finean, adabaki funtzioak egiten ditu DBEk, beste politikek uzten dituzten hutsuneak estaltzeko: etxebizitza alorrean dauden politika hutsalak, langabeziagatik dauden prestazio eskasak, lan egin ezin duten etorkinak arautzeko arazak... Hori dio Joseba Zalakain gizarte zientzietako adituak. Are gehiago, nolabait Gizarte Segurantzaren hutsunea betetzen du, Felix Arrietaren arabera: “Gizarte Segurantzaren propioa izateko aukera jasotzen du Gernikako Estatutuak eta horrek ahalbidetuko liguke pentsio sistema eta langabezia kudeatzea edota lan esparrua beste modu batera antolatzea, konbentzitutako nago

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta mantentzea beharrezkoa da, baina baita sorospen sistematik harago joango den eredia birpentsatzea ere

Gizarte Segurantzaren ekonomikoki gure gain hartzeko prestatuta gaudela, baina Espainiako Gobernuak beti ukatu digu aukera hori, kutxa bakarra eta espainiarren arteko elkartasun printzipioa argudiatuta. Bitartean, DBEk neurri batean funtzio hori betetzen du langabezia prestazioak edo pentsioak orekatuz”.

Frantziako Estatuan, Ipar Euskal Herrian barne, antzekoa da gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sistema: Revenu de Solidarité Active (Elkartasun Aktiborako Errenta) delakoa DBEren gisakoa da kontzeptuan, inbertsio mailan eta estalduran. Nafarroan aldez, krisiaren lehenengo urteetan oinarritzko errenta sistemak estaldura maila egokiatu zuen arren, oinarritzko errenta hori 2012an Gizarte Integrazioarako Errenta (GIE) bilakatu izanak atzerakada handia ekarri zuela salatu du Miguel Laparra soziologoak:

epeetan mugak ezarri ziren eta baldintzak zorroztu zituzten (eroldari lotuta, adibidez); ondorioz, behar duten guztiek ez dute errenta jasotzen. Eta jasotzen dutenek, gainera, EAEn baino kopuru dezente txikiagoa jasotzen dute.

Etxebizitzaren Prestazio Osagarria eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak ere badiutze EAEn –Nafarroan larrialdietarako laguntzak baino ez dituzte, estaldura eta kopuru askoz txikiagoan–. Etxebizitzaren Prestazio Osagarriak aterpea bermatzea du helburu eta osagarria da DBErekin; Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak Jaurlaritzak ordaindu eta udalek kudeatzen dituzte, baina ez da eskubide subjektiboa eta hortaz diru kopuru jakin bat bideratzen da gizarte-larrialdietara, eskaera handiagoa izan daitekeen arren.



Irudian, Algortako familia bat etxegabetu duten unea (2014ko ekainean). Hezkuntza, lan merkatua eta etxebizitza arloa egokitzea funtsezkoa da, pobrezia gutxiago sortzeko, adituen esanetan.

“Nafarroan obsesionatuta daude prestazioa jasotzen dutenen kontrolarekin, eta ahalegin gutxi egiten da diruaz gain gizarteratze prozesu bat eskaintzeko”

Miguel Laparra, soziologoa

Lau kolektibori erantzuten diete gizarte zerbitzuek: babesgabe dauden adin txikikoak, menpekotasuna duten adinekoak, ezgaituak, eta gizarte bazterketa jasaten dutenak. Azken zaku hori da egungo erronka nagusia

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta vs. Oinarrizko Errenta Unibertsala

Aipatu ditugun errentak ez dira nahastu behar oinarrizko errenta unibertsalarekin, alegia bakoitzak herritar izateagatik gutxieneko errenta bat izateko eskubidearekin. Fiskalitatea euren gain izanik, EAEk eta Nafarroak errenta unibertsalaz eztabaidatzeko tresnak badituztela azpimarratu du Arrietak, gaur egungo gutxieneko errenta ez baita unibertsala, errola baldintzei edota enpleguari dago lotuta, “baina gutxieneko errenta lotu behar al zaio enplegu bat izateko gaitasunari? Errentaren unibertsaltasunarekin talka egiten du horrek; beste kontzeptu, kopuru eta ondorioak lituzke oinarrizko errenta unibertsalak”. Hain juxtu, 2012tik udal gizarte zerbitzuen ordezkari Lanbide enplegu zerbitzua da DBE kudeatzeaz arduratzen dena, errenta jaso ahal izatea ordaindutako enpleguari estuki lotuta dagoen seinale. Lanbidek DBE bere gain hartzeak eragin du batetik zerbitzuaren kolapsoa –lan eskergagatik– eta bestetik –egoki egiten ez den– kudeaketa ekonomikora mugatzea arreta: “Udaletako gizarte zerbitzuetan egiten zen jarraipena eta laguntza galdu da, Lanbiden ez dagoelako gizarte lanetako profila duen jende nahikorik, iristen diren kasuak ikuspegi eta integrazio sozialetik jorratuko dituztenak”, azaldu digu Arrietak.



ADOS TEATROA

MAITASUNAREN OSTEAN MAITASUNA
Apirilak 17, ostirala 21:30



basterokulturgunea.blogspot.com.es | © 943.30.35.40

Ez da errentari egiten zaion kritika bakarra. DBE jasota ere, jende asko ez dela pobreziatik ateratzen gogoratu du Zalakainek, beharrian guztiak ez dituelako asetzen, edota beharra duten guztiek ez dutelako errenta jasotzen. DBE mantentzea beharrezkoa da, baina sorospen sistema batetik harago joango den erredua birpentsatzea funtsezkoa dela dio adituak. “Gehiago begiratu behar diegu pobrezia sortzen duten sistemei eta ez hainbeste sortu ondoren pobrezia leundu nahi duten neurriei. Hots, politika birbanatzaileetan bakarrik ez, politika aurre-banatzaileetan ere indarra jarri beharko genuke: hezkuntza, lan merkatua eta etxebizitza arloa egokitzea premiazkoa da, pobrezia gutxiago sortzeko. Prebentzioa da gakoa, neurri paliatibo asko izanagatik lan merkatu ahula edo baztertzaila baldin baduzu (desorekatua soldatetan, prekarioa, kalitate gutxiko lanetan oinarritua...) hankamotz zaudelako. Eta berdin jendea atzean uzten duen eta edozein familian seme-alabei aukera berdina bermatzen ez dizkien hezkuntza erredua badaukazu, edo eskolak ez badu eskaintzen egungo egoerara egokitzen den behar bezalako prestakuntza. Bestela, Espainiari edo Greziari gertatutakoa gertatuko zaizu, zure aukera bakarrak eraikuntza, turismoa eta balio txikiko sektoreak direla, eta hor kasik ezinbestekoa da pobrezia egotea”.

Arrietaren ustez, oreka aurkitzea da zailena: “Elikagai bankuek adibidez oso lan ona egiten dute, baina horrek ezin du izan erredua, asistentzia oinarritutako ereduaren gainetik egon behar dute erakundeek eta herritar gisa guk ere beste zerbaiten bila jo behar dugu, ezin dugu utzi erakundeen esku solidaritatearen garapen guztia”. Miguel Laparrak gehitu du Nafarroan egun duten erredua obsesionatuta dagoela herritarren kontrolarekin, dirua jasotzen dutenak baldintzak zorrotz betetzen dituztela egiaztatzeko asmoz. “Kontua da, ekintzak horretara daudela zuzenduta eta ahalegin gutxi egiten dela prestazio ekonomikoaz gain gizarteratze prozesu bat eskaintzeko, pertsona horrek lana lortu ahal izateko,

Prestazio sozialak, iruzurra eta etorkinak

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ahotan sarri hartu du Javier Maroto Gasteizko alkateak azken boladan: prestazio soziale-tan egiten den iruzurra saihestea omen du helburu eta DBE jaso ahal izateko baldintzak gogortu nahi ditu horretarako. Baina zer dio alkateak eta zer diote datuek? “Etorkinak gizarte laguntzetatik bizitzera datoz”, esan du Marotok, baina 2013an baino kanpotar gutxiago zenbatu zituzten 2014an EAEn eta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, krisiak eraginda erkidegotik alde egiten dutenen %85 kanpotarrak dira (eraikuntza, ostalaritza, nekazaritza... gehiago dagoen lurraldeetara mugitzen dira, lan bila). “Gizarte laguntzetan egiten den iruzurra eskandalagarria da”, dio Marotok, baina Lanbideren ikerketen arabera, DBE laguntzetan egon den irregulartasuna %1ekoa da eta batik bat akats administrati-boen errua da; benetako iruzurra gizarte laguntzen %0,3 baino ez da (3,8 milioi euro inguru). Konparazioarako, iruzur fiskalak 2.000 milioi euroko zuloa uzten du urtero EAEn (13.500 milioikoa ikuspegi ezkorrenen arabera). “Aljeriar eta magrebtar gehienak gizarte laguntzetatik bizi dira Gasteizen”, Marotoren esanetan, baina Lanbideren datuek argi uzten dute DBE kobratzen dutenen gehiengo handia “bertakoa” dela (%60,7 euskal herritarrek edo Espainiako Estatu-koak dira, magrebtarrak berriz %9,3). Eta bi ohar: batetik, etorkinek (ere) DBE behar izatea ulergarria da, krisiak askoz gogorrago kolpatu dituen profiletako bat dire-lako eta maiz ez dutelako familia



PPko kideak (Javier Maroto tartean) Ayudas+Justas ekimena babesten.

sarerik, kontrakoa –laguntzarik ez jasotzea– susmagarria eta kezkatzekoa litzateke; bestetik, azterketa guztien arabera etorkinek jasotzen dutena baino ekarpen handiagoa egiten diote Gizarte Segurantzari.

Laguntzak eskuratzeko sarbidea zailteak ez du zerikusirik iruzurrari aurre egitearekin

Zilegi da DBEn egon daitekeen iruzurra kontrolatzeko baldintzetan aldaketak proposatzea, baina laguntzak eskuratzeko sarbidea zailteak –eta hori da Marotok eskatu duena– ez du zerikusirik iruzurrari aurre egitearekin, are gutxiago prestazioa kolektibo jakin bati ukatu nahi zaio-nean. Hauteskunde bezperetan, propaganda politiko demagogikoaren kiratsa dario aferari, eta halako mezuak etengabe zabaltzea arrisku-

tsua da, ez soilik tentsioa, zatiketa eta etorkinen estigmatizazioa areagotzen eta elkarbizitza kaltetzen dutelako, baita babes eta ongizate sistema bera kolokan jartzea ekar lezakeelako ere.

Ayudas+Justas?

Testuinguru hori guztia aintzat hartu ezean, zeinek ez luke sinatuko Ayudas+Justas (Laguntza bidezkoagoak) lelotzat daraman ekimen bat? Marotok eta PPk babestu eta sustatu duten ekimen herritarrek 30.000 sinadura bildu nahi ditu, DBE kobratzeko baldintzen araudia zorroztu dadin. Giro mikaztu horretan, alkatearen politika baztertzailerak salatu dute Gasteizko 78 eragilek, Gora Gasteiz plataforma jaio da kultur, arraza, sexu joera... aniztasunaren alde, eta hiriburuko elizbarrutiko 68 apaiz agertu dira Ayudas+Justas ekimenaren aurka, diskurtso tranpatiarekin diskriminazioa bultzatzen duelakoan.

formazioa gaurkutzeko, bizi-baldintzak hobetzeko...”.

Eredua birpentsatu ezean, desorekak kronifikatzeko arriskua dagoela ohartarazi du Zalakainek: batzuentzat oso enplegu onak, eta oso kalitate txarrekoak bestetzentzat, biztanleen %20-40 bizitza osoan prekarietate horretatik atera ezinik lagako dituztenak.

Gizarte zerbitzuak, beste hanka nagusia... eta desorekatua

Gizarte zerbitzuak dira politika sozialen bigarren zutabea. Zerbitzuok bereziki lau kolektiboren beharrei erantzuten diete: babesgabe dauden adin txikikoak (programa bereziak daude familia gatazkasuentzat, baita droga edo bestelako menpekotasunak dituzten nera-



beentzat ere, eta pisu eta egoitza espezializatuak, azken buruan); menpekotasuna duten adinekoak (zahar etxeak daude, eguneko zentroak, etxez etxeko zerbitzuak...); ezgaitasunen bat duten pertsonak (egoitza espezializatu ugari daude, Gureak gisako enplegu zentroak...); eta gizarte bazterketa sufritzen dutenak. “Azken hori ongi zehaztu gabeko zakua da oraindik, zer da gizarte bazterketa jasatea? Zaku zabala da, hein handi batean ezezaguna, eta horregatik ez dauka arazoari aurre egiteko beste hiru kolektiboen moduko sare definiturik –azaldu digu Arrietak–. Zaku hori da egungo erronka nagusia, pobrezia aurre egin behar zaiola esaten denean horretaz ari garelako. Zentroak, aterpeak... badaude, baina sarri irabazi asmorik gabeko erakundeen esku (Caritas, Emaus, Gurutze Gorria...), administrazio publikoaren aurretik joan direlako, gizarte zerbitzuak izan direlako inoiz inor inporta izan ez zaion arloa”.

Arrietak bi arazo nagusi ikusten dizkie EAEko gizarte zerbitzuei: gestio desorekatua eta ereduaren eztabaida eza. Izan ere, foru aldundiek dute gizarte zerbitzuen eskumena, eta hortaz, gipuzkoar, bizkaitar eta arabarrek aukera ezberdinak dituzte gizarte zerbitzueta- ra sartzeko. Hirugarren adinekoei eskaintako zerbitzuei buruz egin duen tesian hala ondorioztatu du, kudeaketa eta tarifa eredu diferentea baitute hiru lurraldeek, eguneko zentroetan, zahar etxeetan nahiz menpekotasun laguntzetan. “Osakidetzak sistema bakarretik erantzuten dien moduan osasun beharrei, gizarte zerbitzuen sistema bakarra izan beharko genuke, erakunde bakarraren esku. Aurkakoei diote gertutasuna galduko genukeela, baina auzoko anbulatorioa urrun sentitzen al du herritarrak? Gizarte zerbitzuei duten garrantzia eman eta herri gisa estrategia bateratua –herritar guztiei aukera berdina eskainiko dizkiena– behar dugu”. Etorki-

137.000 herritar behar larrian

2012tik 2014ra, pobrezia %50 egin du gora EAEn; biztanleen %16,8 bazterketa egoeran dago (360.580 pertsona inguru) eta %4,9 pobrezia larria jasateko arriskuan (105.000 lagun), zifra historikoa EAEn. Nafarroan, %4-5ari eragiten dio pobrezia larriak (32.000 biztanle) eta “bazterketa soziala pairatzen dutenen egoera kronifikatzeko arrisku handia dago Nafarroan, inoiz ez bezalakoa”, Miguel Laparra soziologoaren hitzetan.

Gizarte zerbitzuetan ere zein babes sistema nahi dugun eztabaidatu behar dugula dio Felix Arrietak: adibidez, hirugarren adinekoei nola emango diegu arreta onena? Plaza bana bermatu behar diegu zahar etxean? Ala euren etxeetan jarraitu ahal izateko baliabideak jartzea da lehentasuna?

zunak zer dakarren ikusi beharko da, Gizarte Zerbitzuetako Saila onartu baitu berriki Eusko Jaurlaritzak, hiru lurraldeetako sistema eta zerbitzuak homogeneizatzeko bidean.

Eredua berriz, inertiak markatzen duela dio Arrietak, alderdiek ez dutelako hausnarketarik egin. “Aldundiek ez dute eredurik gizarte zerbitzuen arloan, dagoenari jarraipena ematen zaio. Zein babes sistema nahi dugun eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, hirugarren adinekoei nola emango diegu arreta onena? Bermatu behar dugu guztiek plaza izatea zahar etxeetan? Ala demenzia edo gaixotasunen bat izan arren etxean jarraitu ahal izateko baliabideak jartzea da lehentasuna?”. Estrategia integralik ez dagoela kritikatzen du, udalak direla azkenean gauza hauetan guztietan pentsatzen duten erakundeak, eta udalak direla, hain juxtu, aurrekontu txikiak eta baliabide gutxi dituztenak.

Patata beroa udalen gain

Arretari lotutako zerbitzu asko dituzte udalek –bazterketa egoeran dauden lehengo mailako arreta, esaterako– eta baliabide gutxi, besteak beste Joseba Zalakainen hitzetan udalen fiskaltatea oso baxua delako; alegia, zerga gehiago kobratu ditzaketela. Kontua da, Felix Arrietak dioenez, udalek ez dituztela argi euren eskumenak, EAEn ez baitago udal legerik, eta horrek dakarrela finantzaketa argirik ez izatea eta udalek sarri dena euren gain hartzea (kultura, garraioa, gizarte zerbitzuak...).

Politika sozialetan hainbat herri egiten duen ahaleginaren adibide da Donostia: gizarte bazterketa kasuei aurre egitera zuzendutako diru-laguntza laukoiztu egin du lau urtetan, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen eskaera guztiei aurre egiteko Jaurlaritzaren diru-partida osatu du (kopuru osoaren %41 udalak jartzen du) edota gizarteratzeko laguntzen bidez donostiarren behar oso anitzei erantzuten die: elikagaiak, ostatua, formazioa, laguntza juridikoa, zorpetzea, haurtzaindegia, instalazio elektrikoa, arropa, botikak, garbitzeko materiala... “Sarri, alkaterean eta udal gobernuaren borondatearen arabera da herriko politika soziala, eta ezin du horrela izan, arlo estrategikoa behar du izan, eta ardura kolektiboa”, azpimarratu du Felix Arrietak. ■

II. Herri hezitzailea, eskola herritarra

jardunaldiak



FINLANDIAko hezkuntza eredugarria ezagutzen



**Apirilaren
24an eta 25ean
Donostiako KURSAALen**

Duela bi urte Francesco Tonucci pedagogoa eta “Haurren hiria” egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena emateko, oraingoan, ikasle guztiak kontuan hartzen dituen Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutuko ditugu. Antolaketa, hezkuntza, aisialdia, euskara eta kulturako 12 eragile izan ditu bidelagun Hik Hasi.



El Martinet

Katalunia

Nori zuzendua: irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (parte-hartzea, berdintasuna, euskara, gazteria, aniztasuna, kultura, lurralde antolamendua...), gurasoei, eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Apirilaren 24an:

Heziketa ardatz duen HERRIA

- Finlandiako hezkuntza. **Leo Pakhin.**
- Hezkuntzaren garrantzia. **Koldo Saratzaga.**
- Herri-hezitzaileen sarea. **Lorea Agirre etab.**
- Gipuzkoako Foru Aldundiko **Gaztematika.**
- Euskal Herriko **hainbat esperientzia.**

Apirilaren 25ean:

Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Finlandiako eskolen parte-hartzea. Haurra nola hartzen duten bere osotasunean.
- **El Martinet**, Kataluniako eskola berritzailea.
- EHuko eta HUHEZIKo irakasleak.
- EHko **hainbat esperientzia: Harremonak...**

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus helbidean

«Euskararentzat ia hil ala biziko kontua da aldaketa politikoa Nafarroan»

Bertsolariaren barne aldean, emozioak bor-bor.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Julio Soto bakarra, baina hiru tokitakoa aldi berean?

Iruñean sortu eta hemen bizi naiz, baina aita Gesalaz ibarreko herri txiki-txiki batekoa da, Irurrekoa, eta ama Gorritikoa. 15-16 urtera arte asteburuak eta oporraldiak bien artean banatzen genituen. Nik azkeneko urteotan joera handiagoa izan dut Gorriti aldera euskararentzat eta bertsoarekiko loturarengatik. Han ikasi dut gauza asko eta hango sentitzen naiz, baina hiruetan egoten naiz gustura.

Hirian bizi den baserritarra zara zu?

Baserri mundura oso lotuta bizi izan naiz txikitatik. Aitaren partez nekazariak dira eta amaren aldetik abeltzainak; behiak eta behorrek hazten dituzte. Neroni ere oso zalea naiz eta ordu asko igarotzen ditut behorrek. Nire lehen pasioa hori da, abeltzain mundua. Hori dela-eta Nekazal Ingeniaritza ikasi nuen eta hura bukatzean nire bigarren pasioak, hitzekiko zaletasunak, filologia ikastera eramainduden.

Abeltzain ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Nire bizitzako ametsik handiena izan da baserri bat edukitzea eta behorrek bizimodu atera ahal izatea. Betiko baserri bat: goian ganbara, erdian bizitza eta behean ukuilua behor, behi eta ardi batzuekin. Hori izan da betidanik, eta bada, nire amets idilikoa. Granja industrialak baino gehiago baserriaren xarmak erakartzen nau.

Ekonomikoki zaila, ezta?

Ez da bideragarria. Edo herentzian jasotzen duzu edo ezin da. Eta hala izanik ere gaur

egun oso zaila da. Neure buruari esaten diot ezinezkoa dela, baina gero ikusten ditut horretara animatzen diren gazte ausartak eta inbidiaz begiratzen diet.

Baserri mundua eta euskara, zure bi pasio horiek asetzeko bidea aurkitu zenuen unibertsitatean?

Egia esan ez ingeniaritzan ez filologian ez nuen aurkitu neure iritziz izan beharko lukeena. Ingeniaritzan hiru urte eman genuen animaliarik ukitu gabe eta garirik zanpatu gabe eta filologian ere dena oso teorikoa zen. Power Point asko eta burua eragiteko akuilu gutxi. Informazioa eman edo bilarazten dizute baina gaur egun, hainbeste informazio egonda toki guztietan, nik uste dut unibertsitateak ikaslearen kontzientzia astintzeko tokia izan beharko lukeela, ikaslea intelektualki formatzeko lekua. Praktikoagoa. Eta eskoletan ere gauza bera gertatzen da: memorizazio lana da batez ere. Ikasleari ez zaio hitz egiten uzten. Eskoletan hitzetik, oratoriatik eta erretorikatik gehiago

NORTASUN AGIRIA

Julio Soto Ezkurdia. Iruñean sortua, 1987ko abuztuaren 28an. San Fermin ikastolan ikasi ondoren Nekazal Ingeniaritza egin zuen NUPen eta Euskal Filologia EHUn. Asteburuetan baserritar sena Gorritin, amaren herrian, asetzen du eta astez Iruñeko Alde Zaharreko eta Arrotxapeako bertso eskoletan dabil irakasle. Martxoaren 28an jokaturako Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean, txapela lortu zuen hirugarren aldiz. Aurtengo saioa, haatik, bereziki hunkigarria izan da berarentzat, urtarilaren bukaeran auto istripuz hil baitzitzaion anaia gaztea. Hari eskaini zion saria.



egon beharko lukeela uste dut. Eta zer esanik ez Euskal Herrian. Hezkuntza sistema hau hemen dagoen euskararen maila apalarekin lotzen dut. Iruñerrian hori oso nabaria da, baina tamalez, Nafarroako eremu euskalduneko puska handi batera ere hori hedatu da. Gorritin, Larraunen bertan, euskararen kalitate maila dezente jaitsi da. Eskolan oso gutxi hitz egiten dute eta egiteko daukaten aukera bakanetan, jostaldietan, erdarara lerratzen dira gainerako guztia erdaraz egiteko ohitura dutelako. Euskaraz hitz egiteko trebezia eta konfiantzarik ez dute. Nik behintzat oso gordin bizi dut hori eta iruditzen zait nire eskola garaian jendeak Iruñean hobeki hitz egiten zuela gaur egun baino. Nire ustez gaur egun D ereduak ez du bermatzen euskaraz hitz egiten aterako zarela maila onargarri batean. Pertsona asko ikusi ditut hamabost urte D ereduaren eman ondoren, 18 urterekin, neke handiz hitz egiten dutenak. Hor bada akats handi bat. Hezkuntza sistemak oro har, eta bereziki gureak, iraultza bat behar luke alde horretatik, bestela iruditzen zait hemendik aurrera oso gaizki ibiliko garela.

Bizimodu aldaketaren eragina ere izan daiteke? Aurrez aurreko harreman gutxiago dugu egun?

Bai. Azken urte luze hauetan gero eta gutxiago hitz egiten da etxeetan, familietan. Afalostean beti dago telebista tartean eta orain

sofan dagoen jende adina mugikor dago eskuetan. Oso isilik bizi gara, pantailetara begira. Plazan gero eta gutxiago jolasten dira haurrak eta hitz egiteko trebetasuna galtzen da. Gure kasuan, gainera, arazoa biderkatu egiten da telebistatik, pantailetatik ia dena erdaraz jasotzen dugulako.

Lengoaia da gure pentsamenduak ordenatzeko dugin baliabidea?

Askotan hitz egiten duzunean ohartzen zara zer pentsatzen duzun, zer sentitzen duzun. Niri hori askotan bertso bidez gertatzen zait. Zailtasunak izaten ditut hitz egiteko, hitzez nire sentimenduak azalaraztea kostatzen zaidalako, agian lotsati samar naizelako, baina bertsoen bidez, zorionez, lortzen dut. Eta uste dut isiltasuna ere oso garrantzitsua dela. Niri behintzat asko laguntzen dit. Isiltasunean gauzak pentsatu eta neure burua aurkitzen dut. Eta esango nuke hitz egitea gero eta gehiago kostatzen zaigun bezala, gero eta deserosoago sentitzen garela isilik.

Behorrek laguntzen dizute horretan?

Naturak, oro har, laguntzen dit horretan. Nire barruko bakea bilatzen dut nik hor.

Zer da hainbeste jende, eta jende gaztea gainera, erakartzen duena hitza oinarri duen bertsoaritzara?

Bertsolaritzak berezko lilura hori dauka: hitza. Bat-bateko hitza. Magia hori erakargarria dela uste dut. Bertsoak emozioak sortzeko daukan gaitasuna, bai bertsolariari bai entzuleei. Gauza asko nahasten dira, baina emaitza komunikazioa da, sentimendu batzuk eragitea. Entzule batek esan zidan finalean lehenbiziko aldiz negar egin zuela bertso batzuekin. Egia esan, hunkitu ninduen. Gauza ederragorik ez dago: zure bertsoen edo duzun arte moduaren bidez, pertsona batengan irribarrea edo malkoak eragitea.

Gizartearen ideia batzuk aldatzeko tresna ere bada bertsolaritza?

Bertsoak bere indarra du. Potentzial oso handiko tresna da gai askori buruz hitz egiteko eta gizarte aldatzeko, beste arte modu guztiak bezala. Bertsolariak badu askatasuna pentsatzen duena esateko eta bertsoak badu ideia eta sentimendu batzuk sortzeko ahalmena. Bertso batek ez du gizarte aldatuko, baina gure aletxoak jartzen dugu. Lehengo egunean, adibidez, finalean, kantatu genuen 70 urterekin lehenbiziko aldiz masturbatzen den emakume bati buruz. Uste dut entzule batzuk lehen zeukaten gai horren inguruko pertzepzioa eta orain daukatena ez dela berdina, agian saio horren ondoren pentsatuko

dutelako zer lanak izan dituzten emakumeek beren buruari plazera emateko.

Bertsolari handiok iritzi sortzaileak zarete?

Jende ugari dago asko pentsatzen duena, baina bertsolariak abantaila du egoera askotan, rol desberdin askotatik kantatu beharra izaten duela eta zenbait gairi buruz derrigor pentsatu behar duela. Iritzia askotan eskatzen digute hizketan ere gure ideiak entzun nahi dituztelako, baina bertsolaria ez da beste inor baino gehiago eta ez daki inork baino gehiago. Oso uste okerra dago bertsolarien inguruan: edozein gauzari buruz asko dakigula, intelektual handiak garela... Hori ez da egia. Ez gara estralurtarrak eta batzuetan gehiegi baloratzen gaituzte.

San Frantzisko eskolan, Alde Zaharrean, bi talde dituzu bertso eskolan eta beste bat Arrotxapean, 10 eta 13 urte bitarteko neska-mutulekin. Zer moduz irakasle gisa?

Oso sentsazio atseginak bizitzen ari naiz, ikusten dudalako umeak euskararekin jolasteko gogoz datozela eta gainera egin dezaketela. Ikusten dutenean euren burua horretarako kapaz, erakarrita sentitzen dira. Nahi dute magia horrekin segi eta hori lehen pausoa da euskarara hurbil daitezen. Hori da bertsoaren

Kalean da apirileko



aizu!

- **Ainara Azpiazu Aduriz Apxi** arin-arin
- **Liburuak** errezetan
- **19. Korrika** hamaika iruditan
- **Bidelagun eta bidelarien** berbak
- **Erronkariko gazta,** bertako ardien esnearekin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org



funtzio nagusia euskalgintzan, batik bat hemen Nafarroan. Sentsazio horrek izugarri asebetetzen nau. Horregatik egiten dut hain plazer handiz.

Anaiaren galerak markatu zaitu aurtengo txapelketan. Gogorra, noski.

Bai, zalantza handiak izan nituen jarraitzeko. Hasteko ez nekielako egokia zen ala ez. Anaia-renganako errespetuagatik ere zalantzak izan nituen. Agian hobe zen jendaurrean ez agertzea. Ez dakit. Eta gainera ez nekien emozioei eusteko gauza izango ote nintzen oholtzan. Txapelketako saio bakoitza borroka izugarria izan da neure buruarekin eta emozio pila sentitu dut. Emozioak sentitzea oso gauza ederra da, nahiz eta emozio horiek minenak izan. Behintzat zerbait sentitzen duzu. Finalean jendea nirekin ikustea, barrez, negarrez... ikaragarria izan da. Bertsoak asko lagundu dit hilabete hauetan eginbehar bat izaten. Eta emozioak askatzen ere lagundu dit, nahiz eta gaiarekin lotuta ez egon. Adibidez, niretzat gai umoretsu bati buruz kantatzea egoera honetan erronka handia zen. Eta hori lortzeak, jendea barrez ikusteak, lagundu dit. Barruan indarra topatzen lagundu dit bertsoak.

Umorea maite duzu, gainera...

Oso pertsona umoretsua naiz. Oso gertukoa dut irribarrea eta bereziki adarra jotzea. Ziria sartzea. Ezagutzen nautenek badakite hori. Iru-ditzen zait, gainera, jendeak barre egiteko beharra duela. Eta bertsoa horretarako ere bada.

Entzuleek adar jotzailea eta aldi berean sakona den pertsona nahi eta behar dutela uste dut.

Umore zirikatzaile hori aldatu da azken urte hauetan Euskal Herrian?

Bai, nik hori lotuko nuke hitz egiteko erraztasunarekin. Garai batean gehiago jolasten zen hizkuntzarekin egun baino, jendea orain gehiago kostatzen zaiolako. Gizartea tristea go bizi dela esango nuke. Bixigarri pixka bat falta zaio.

Umore kontsumitzaileak gara, sortzaileak baino?

Baliteke, bai. Jendea umorea gustatzen zaio eta barre egiteko beharra du. Eta sortzea ere ez da erraza. Hemen sortzen duenari begiak erneegi jartzen zaizkio. Joera handia dago kritikatzeko eta esango nuke bereziki euskal munduan. Besteak zer egingo zain gaude "baina" bat bilatzeko eta joera horrek gora egin du izugarri azken urteotan sare sozialen erabilpenarekin. Jarrera horrek ez du batere laguntzen sortzen. Kritika eraikitzailea denean ongi etorria da, baina askotan suntsitzaileak egiten dira hemen.

Politikan bezala?

Politika jarrera horren isla ere bada. Ez gara kapaz gauza minimoak ere adosteko.

Nafarroan aldaketarik egonen da maiatzean?

Nik momentu honetan ziurtasun guztiz sinesten dut aldaketa izango dela. Emango ez

AZKEN HITZA

Bertso-menpekotasuna

15 urterekin hasi zen Julio Soto bertsoen munduan. Estitxu Fernandez eta Estitxu Arozena ikastolara joan ziren klase batzuk ematera eta Julio gaztea erabat harra-paturik gelditu zen: "Sorgindu egin ninduen lehen momentutik eta esango nuke obsesionatu ere egin nintzela". Eta neurrigabeko zaletasun bilakatu zitzaion, non-bait: "Urteekin ikusi dut horrek ez didala mesede handi-rik egin. Bertsoa nire bizitzako toki zentrallegi bihurtu zen. Ez nuen jakin izan beste gauzei ere garrantzia ema-ten. Horrek ekarri didana izan da azken bi txapelketetan mamu asko, beldur asko izatea eta neure buruarekiko konfiantza gutxiarekin aritzea bertso saio txar batek ekar-tzen ahal zizkidan ondorioen beldurrez. Denborarekin ohartu nintzen, anaiarena gertatu baino lehen ere, beha-rrezkoa zela ahalegina egitea bertsoak bere tokian jar-tzeko nire bizitzan. Toki garrantzitsua du eta izango du beti, baina orain ez da nire lehentasun bakarra".



balitz zer gerta daitekeen pentsatzen hasita, barruan korapilo bat jartzen zait. Espero dut aldaketaren alde daudela dioten alderdiak elkar ulertzeko gai izatea. Zalantza handiena dut Podemosekin, gehienbat ez dakigulako zer egingo duen. Ea gobernu aldaketak bene-tako aldaketa dakarren. Matematikoki bidera-garria izanik ere, gero aldaketa hori gauzatu egin behar da eta horretarako alderdi guztiek amore eman beharko dute zerbaitetan. Espe-ro dezagun atzerapausorik ez izatea.

Euskararentzat zer nolako etorkizuna ikusten duzu?

Euskararentzat ia hil ala biziko kontua da alda-keta politikoa Nafarroan. Hemengo euskara-ren egoera Nafarroatik kanpo pentsaezina da. Ezin irрати lizentzia bat eduki, ezin ETB ikusi, ezin euskaraz ikasi, ezin euskaraz hitz egin toki askotan, kultura erabat zangotrabatua eduki-tzea... Bertsozale Elkarte, adibidez, gero eta hari finago batetik zintzilik, gero eta zor han-

diagoak egiten. Iparraldean gure egoera kon-partitzen dute, baina gainerakoei zaila egiten zaie ulertzea zer gertatzen ari den hemen, nahiz eta hizkuntzak arazo larriak izan beste toki askotan ere. Sentitzen dut indarrak buka-tzen ari zaizkigula. Gogoak baditugu gauzak aurrera ateratzeko, baina askoz ere gehiago ez dugu iraungo laguntzarik ez badago. Badakit oso tristeza dela eta batzuk ez direla nirekin ados egongo, baina hori da bederen nik ingu-ruan ikusten dudana. Gizartea oso nekatuta sumatzen dut eta ez soilik Nafarroan. Hizkun-tza politika oso penagarriak egin dira eta EAEn ere euskara bazter batean ikusten dut, zanpatuta. Behar da oso aldaketa sakona. Gure hizkuntza hiltzen ari da Euskal Herri osoan eta neurri gogorrek hartu behar dira. Ezin da beti baimena eskatzen ibili. Ezin gara beti ibili pen-tsatzen zer irudituko zaien erdaldunei neurri hau edo bestea hartzea. Katalunia hartu behar-ko genuke eredu. ■

Iruñeko Planetarioa
Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonetario.org



DANI BLANCO

BIKOTEAK

Harreman berdinzaleetan ere jokabide guztiak ez dira parekideak

Negoiazio prozesuak bikote berdinzaleetan izeneko ikerketa lana aurkeztu du Amaia Agirre soziologoak. Euren burua parekidetzat duten bikoteen arteko botere harremanak aztertu ditu. Proiektua urtarrilaren 21ean aurkeztu zuen EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Donostian.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

ARGI DU: “Negoiaziorik ezean parekideak ez diren praktikak nagusitzen dira”. Hama-bost bikote heterosexual eta homosexual elkarriketatu ditu, banaka zein elkarrekin. 25 eta 50 urte bitarteko lagina hartu du aintzat ikerketa kualitatiboa egiteko. Horretarako, bikote harremanetan gertatzen diren nego-

iazio esparru desberdinak banatu ditu; besteak beste, ekonomiaren kudeaketa, etxeko lanak, zaintza ardurak, bikotearen egitura eta sexualitatea.

“Kontuan izan behar da azterketa egiteko erabilitako laginak ez duela egungo gizartea ordezkatzen, hau da, ikerketa kualitatiboa

dela”, esan du Agirrek. Izan ere, elkarrizketatutako bikoteak aurrez hautatuak izan dira, euren jokabide eta kontzientzia parekideagatik. Eta hala ere, dir-dir egiten duen guztia ez da urrea, eta bikote hauetan ere atzematen dira berdinzaleak ez diren zenbait praktika.

Bikote parekideak osatzeko gakoa, eguneroko kontuen inguruan eztabaidatzea da Agirrerentzat. Horren jakitun dira bikote gehienak, aitzitik, maiz negoziazioak bizitzako beste arlo batzuetan garatu beharreko jardura bezala ulertzen dituzte. “Maitasun erromantikoaren idealagatik gertatzen da hori”, esan du.

Sarri negoziazioek eta eztabaidek tentsioak sortzen dituzte, eta askotan, bikote harremanaren osotasuna “kin-kan” jartzen da. Nolabait “laranja erdiaren mitoa” apurtzen dela uste du, beti ere interes pertsonalen defentsan, eta hori da hain zuzen bikoteek saihestu nahi dutena. Hots, ohartarazi du, negoziazioak alboratzeak arriskuak dituela: “Modu ‘naturalean’ hartutako erabakietan genero rolak gailentzen dira ia beti”.

Bakoitzak bere poltsikoa

Elkarrizketatutako bikote berdinzaleen artean ekonomia kudeatzeko molde berriak ageri dira. Nork bere dirua kudeatzen du. Joera berri hori parekidetasunaren aldeko urrats gisa ulertzen du Agirrek: “Kudeaketa ekonomikoko berriek botere harremanak berdindu dituzte”.

Egungo egoera sozial eta historikoa ez dute lekuri orain arteko arketipoek: gizona hornitzailea eta emakumea administratzailea. Ideologikoki eta ekonomikoki zaharkituak geratu direla dio.

Lehen aipatu bezala, lagina ez da egungo gizartearen isla. Kasu gehienetan *statu quo* sozioekonomiko bera partekatzen dute; eta kasu askotan emakumea da soldata hobe edo egonkorragoa duena. Agirrek dioenez, horrek ez du inolaz errealtatea ordezkatzen. 2009ko EUSTATEko datuei begiratuz gero, ikus dezakegu EAEn 18 urtetik gorako gizonen batez besteko urteko soldata 25.376 eurokoa dela, eta emakumeena 14.241 eurokoa.

Eredu ezberdinak ageri dira, denen egoera sozioekonomikoa ez baita bera. Esaterako, bi mutilek osatutako bikote batean, bietako bat langabezian geratu zen; egoera horren aurrean, kudeaketa ekonomikoa aldatu zuten. Lanean zegoenak langabezian zegoenari dirua sartzen zion kontuan, horrela, eskatu behararen larritasuna saihestu eta dirua berak kudeatu zezan.

LAURA LÓPEZ / EHU



Amaia Agirrerren ustez, maitasun erromantikoa alboratu eta betirako bikotearen mitoa hautsi dute elkarrizketatutako bikoteek. Ekonomiaren kudeaketan gertatzen den bezalatsu, lagunak ere bakoitzak bereak izan nahi ditu, bikotea hautsi daitekeela aurreikusten dutelako.

Orobat, bikotekidearekiko independente izatea da diru banaketa horren atzean ezkututzen den arrazoia. Orokorrean bikoteek kudeaketa ekonomikoa gainean negoziatzeko beharra izaten dute, “betirako bikotearen mitoa” eroria dagoelako eta noizbait harremana buka daitekeela ikusten dutelako: “Ekonomikoki euren buruaren jabe izatea lehenesten dute”. Dena den, Agirrek dio zenbat eta harreman luzeagoa izan, orduan eta gutxiago heltzen diotela molde ekonomikoki indibidualistari. Hainbat faktorek eragiten dute, besteak beste, etxebizitza eta umeak izateak.

Lagundu edo partekatu?

Etxeko lanen banaketa bikoteen arteko parekidetasuna neurtzeko erabiltzen da maiz: “Egun, etxeko lanak dira berdinzaleatasunaren termometroa”. Tesiko ondorioetan ageri denez, bikoteek etxeko lanen banaketa ez dute behar bezainbeste negoziatzen eta gehienetan genero rolak gailentzen dira. Sarritan, lan banaketa laguntza soil bilakatzen da. Elkarrizketetan askotan agertzen dira berdinzaleak ez diren jokabideak, eta haiek justifikatzeko “gustu pertsonalak” edo “modu naturalak” bezalako aitzakiak erabiltzen dituzte.

Amatasun intentsiboa

Zaintza ardurei dagokienean, oraindik ere ama da soinean motxilarik pisutsuena darmana. “Amatasun intentsiboa” gizartean errotua dagoela uste du soziologoak.

Dena den, emakumeek jakin badakite umea edukitzean genero rol tradizionalak gehiago errotzeko joera dagoela. Horrek, talkek sortzen ditu teoria eta praktikaren artean: “Badakite nola jokatu behar duten parekideak izateko, baina maiz praktikan ez dute hala egiten”.

Bikote homosexualetan oster, zaintza lanak gehiago partekatzen dira. Nahiz eta, tesiko ondorioek azaldu dutenez, normalean maila sozioekonomiko txikiena duena den umeen zaintzaz gehien arduratzen dena. Bada, bikote homosexualetan ere ematen dira botere harremanak, baina beste parametro batzuetan.

Hala ere, umearen zaintza hirugarren baten esku utzi behar dutenean, normalean, emakumeen esku utzea erabakitzen dute; bai bikote homosexualek baita heterosexualek ere. Azken hauen kasuan, ia beti, amaren aldeko amonaren esku.

Lagunak, bakoitzak bereak

“Kritikoak dira maitasun erromantikoaren ideiarekin”, dio Agirrek. Independentzia eta autonomia izatea oso inportantea da beraientzat. Lagunen eta denbora librearen kudeaketa indibiduala egiten dute gehienek, eta askorentzat oso garrantzitsua da bizitza sozial propioa izatea, gehienbat “nork bere interesak defendatzeko”.

Maitasun erromantikoa alboratu eta betirako bikotearen mitoa hautsi dute elkarrizketatutako bikoteek. Ekonomiaren kudeaketan gertatzen den bezalatsu, lagunak ere bakoitzak bereak izan nahi ditu, bikotea hautsi daitekeela aurreikusten dutelako.

Alta, harremanen hausturaren inguruan hitz egitean emakume askok “bakardade” hitza erabiltzen dutela azpimarratu du ikerlariak: “Badirudi bikoterik gabe egotea bakarrik egotearekin lotzen dutela. Gizonengan ez da halakorik ageri”, esan du.

Kontrara gertatzen da bikotea bi neskek osatzen dutenean. Agirrek dio kasu hauetan joera gehiago dagoela lagunak partekatzeke.

Hots, gehienek bikote harremana euren harreman sozial eta afektiboen erdian kokatzen dute.

Monogamia eztabaidagai?

Monogamiaz hitz egiterakoan ezberdintasunak ageri dira bikote homosexual eta heterosexualen artean. Normalean, bikote homosexualen harremanaren hasieran hitz egiten da bikote egiturari edo formari buruz. Elkarrizketatutako bikoteetako batean esaterako, eskusibitate sexualari muzin egitea hitzartu dute.

Bikote heterosexual gehienetan berriz, jakintzat ematen da harremana monogamia izango dela. Nahiz eta, ikertutako bikote guztietan izan den eskusibitate sexuala tal-

karako arrazoi. Une horretan soilik mahai-gaineratu dute monogamiaren auzia. Negoziazioetan beti gailendu da eskusibitate sexuala: ikertutako bikote heterosexual guztiek erabaki dute harreman monogamoiarekin jarraitzea. Agirrek dio gehienbat bikote harremanaren oinarria kokan ez jartzeagatik dela. “Zentzu handi batean uste da sexualitate eskusiboa dela bikote harreman bat gainerako harremanetatik bereizten duena”, gaineratu du.

“Sexualitate osasuntsua”

Sexualitatearen gaia nahi baino gutxiago jorratu du soziologoak, tabu asko baitaude

oraindik. Honatx ateratako ondorioetako bat: “Sexu harremanen maiztasunak kezkatzen ditu emakumeak, alta, gizonek ez dute halakorik aipatzen”. Emakume askok sexu harreman “osasuntsuak” izatea maiztasunarekin lotzen dute; ziur aski presio sozialak bultzatu ditu horretara, Agirrereren ustez.

Bikote heterosexualak ez dute behar beste negoziatzen praktika sexualen gainean. Kontrara, ikerlariak dio bikote homosexualen gehiago negoziatzen dela jardun sexualen inguruan: “Sexualitate normatibotik ateratzean lanketa pertsonal handiagoa egiten dute”. Bikote berdinzaileek hainbat ertz zorroztu badituzte ere, asko daude oraindik kamusteko.

Tesian ondorioztatu denez, oraindik uste da bikote harremanek egitura finko bat jarraitu behar dutela: lehenengo maitemindu, ondoren egonkortasuna lortu eta gero eta gauza gehiago konpartitu balizko bukaera batera iritsi arte. “Badirudi egitura bakarra dagoela, eta gero errealitatean argi ikusten da ez dela horrela, baina oraindik ere sarri maitasun erromantikoaren fikzioan harrapatuta jarraitzen dugu”.

Askatuko gara. ■

Negoziazioak alboratzeak arriskuak ditu: “Modu ‘naturalean’ hartutako erabakietan genero rolak gailentzen dira ia beti”

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com


Moyua
hileta zerbitzuak
Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
☎ 943 783 447 / 617 442 466
mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com



**June
Fernández**



KAZETARIA

Feminizidioa

APIRILAREN 5A DA, IGANDEA. Aste honetan, Espainiako Estatuan sei gizonen emakumezko bikotekideak edo bikotekide ohiak erail dituzte. 29 urteko gasteiztar bat izan da azken biktima. Bere hiru haurtxoak umezurtz geratu dira. Feminizidio.net webguneak aurtun hogeiei erailketa matxista zenbatu ditu hiru hilabetetan. Datu ofizialen arabera hamabi dira, Espainiko Estatuak genero indarkeria bezala zerrendatzeko hildakoaren eta hiltzailearen artean bikote harremana egon behar duelako.

Sare sozialetan feministok alerta egoea adierazi dugu; Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako buruek, ordea, ez dute kezkarik erakutsi. “Genero indarkeria Gasteiz lehendakari” hitzak teklatu ditut Googlen. 2013ko albiste bat agertu da lehenengo emaitza bezala: Iñigo Urkulluk Emakunderen ekitaldi batean esan zuen genero indarkeria eraztea garrantzi handiko helburua dela berarentzat. “Erailketa Gasteiz Urkullu” Googlen idatzi dut ondoren. *El Mundo* egunkariak honako albisteak agertu da lehen emaitzen artean: “Ertzaintza ‘yihadismo terroristari’ aurre egiteko guztiz prest dagoela ziurtatu du lehendakariak”. Data: 2015eko apirilaren 1a. Yihadismoaren mamuak indarkeria sexistaren errealitateak baino arreta politiko eta mediatiko gehiago jasotzen du. Berdintasunaren aldeko ekitaldi konkretuetatik kanpo, emakumeen erailketek ez dute deklarazio politikorik merezi.

Erasotzaile matxistak ez dira izaki zoroak, patriarkatuaren semeak baizik, emakumeentzat bortitza den eta eraso sexistak normalizatzen dituen sistema honetan heziak. Hori esan nahi dugu genero indarkeria egiturazkoa dela azaltzen saiatzen garenean

Aste honetan bertan, Guardia Zibilak Twitterren bidez emakumeen kontrako tratatu txarrak gizonen kontrako tratatu txar

rekin parekatzen dituen kartel bat hedatu du. Nire lagun ez feministek egoki ikusi dute indarkeria guztiak neurri berean salatzea. Berriro ere azaldu behar izan dut halako irudien helburua emakumeen kontrako indarkeriaren berezitasuna eta egiturazko izaera ukatzea dela.

“Etxeko indarkeria” kontzeptua erabiltzen dute askok oraindik ere. Espainiako Estatuko Genero Indarkeriaren kontrako legeak joera hori indartzen du, bere aplikazioa bikote esparrura mugatzen duelako. Indarkeria matxistak, ordea, hamaika aurpegi ditu. Sexu jazarpena, esaterako, kalean, lanpostuan, tabernan, gaztetxean edota autobusean bizi dezakegu. Erasotzaile matxistak ez dira izaki zoroak, patriarkatuaren semeak baizik, emakumeentzat bortitza den eta eraso sexistak normalizatzen dituen sistema honetan heziak. Hori esan nahi dugu genero indarkeria egiturazkoa dela azaltzen saiatzen garenean.

Baina erailketei buruz aritzeko “indarkeria matxista” kontzeptua erabiltzeak ere arazo bat dakar: icebergaren tontorra bakarrik izendatzea suposatzen duela. Hori dela eta, premiazkoa iruditzen zait Latinoamerikan oso hedatuta dagoen “feminizidio” kontzeptua gurera ekartzea. Hau da, emakumeak emakume izateagatik bikote esparruan zein beste esparruetan (gogoratu Nagore Laffage, esaterako) sistematikoki erailak garela azpimarratzeko. Emakumeak kontrolpean mantentzeko helburu duen indarkeria matxistaren adierazlerik odoltsuena dela argi uzteko. Eta, batez ere, estatuen konplizitatea salatzeke. Cear-Euskadi erakundearen hiztegiaren hitzetan, feminizidio kontzeptuak “indarkeriari aurre egiteko estatuak izandako borondate txikia eta eusten dituen egitura patriarkalen bitartez indarkeria iraunarazteko duen papera” adierazten du. Argi dago, gobernuak ez da gai biztanleriaren erdiaren bizitza eta giza eskubideak bermatzeko. Beraz, feminizidioa ez da gertakari isolatuen multzoa, baizik eta emakumeen kontrako estatu-krimena. ■



Inma Errea

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA ♦



DANI BLANCO

Mugetan galdez

DUELA EZ ASKO jakin dut: ba omen dut arbaso bat urrundik etorri zena. Liejatik —eskualde hura eskutik eskura ibili zen garaian—, eta zehazkiago, frantziarrek 1793an sortu zuten eta egun jada existitzen ez den departamendu batetik —Ourthetik, zeina 1814an, Napoleon erori zenean, holandarrek desagerrarazi baitzuten, lur haiek eskuratzearekin batera—. Merkataria omen zen Alduderaingo etorritako nire arbaso hura. Gero, bere ondorengo batek Pirinioak zeharkatu, eta Zilbetiraino iritsiko zen, artzain.

Historia partikularra da hau, baina, historia partikularretan, interesgarriak dira historia kolektiboarekin, munduko emakume eta gizon guztien historiarekin, dituzten loturak. Historia partikularrek galde eta gogoeta ugari sorrarazten dute.

Liejatik etorritako arbasoaren historia partikularrari esker jarri naiz Liejaren historiari buruz arakatzea, eta jakin dut bertako mugen mugimendu ugarien berri. Mugak, mapetan lerro aldagaitzak balira bezala marrazturik aurkezten badizkigute ere, ez dira zerbait finkoa, zertzelada historikoen arabera mugitzen dira. Hala ere, normalean, ez gara horretaz ohartzen, eta ez zaigu bururatzen gauzak bestelakoak izan daitezkeenik. Horren harira... irudi-

katuta izanen dute independentista katalanek Espainiako mapa Kataluniarik gabe?

Ez zaigu otutzen, ezta ere, jendea asko mugitu dela beti (Liejatik Aldudera, 1.100 kilometrotik gora daude!), uste baitugu bidaiatzea —dela bisitari, dela

etorkin gisara— oraingo kontua dela gehienbat. Nire arbasoarenak bidaiatzeko gizakiok ditugun arrazoiez pentsatzera bultzatu nau, eta, daturik gabe, ez dago jakiterik, baina erraza da imajinatzea migratzaile gehien arrazoi printzipalak bultzatuko zuela hura ere segur aski, bizimodua hobetzearena alegia.

Nire arbaso hura, bestalde, mugalde eleanitz batetik beste mugalde eleanitz batera mugitu zen, eta ematen du orduan normala zela euskaldun egitea urrundik etorrita ere (nire birraitonak, haren ondorengoak, euskaraz baino ez zekien gero...), ez orain bezala,

non ezohiko fenomeno batirudien horrek.

Arbasoaren kontuak, batik bat, pentsarazi dit noraino den zentzugabea diferentziak egitea *bertakoen* eta *kanpokoen* artean. Mugak bezala, oso etiketa aldakorrak dira horiek, eta *bertakoa* edo *kanpokoa* izateak ez du inor jartzen beste inoren gainetik. Besteak beste, gaur kanpoko dena bihar bertakoa izan daitekeelako. Eta alderantziz. ■

Historia partikularra da hau, baina, historia partikularretan, interesgarriak dira historia kolektiboarekin, munduko emakume eta gizon guztien historiarekin, dituzten loturak

JOSU SANTESTEBAN



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Duintasun kapilarra

ARGAZKIEK itzultzen dizkizuten irudiekin ez zaude sobera konforme azkenaldian. Argazki zaharren kasuan, ile gehiago ageri da aurpegi gazteagoaren gainean; argazki berriagoen kasuan, aldiz, kopeta gero eta zabalagoa ikusten diozu zeure buruari. Kontu horiek bizitzen ari zarela etorri zaizu gaur semearen galdera, seme-alabek ohi duten eran, ustekabea: “Zergatik duzu ile gutxi, aita?”.

Erantzun on bat eman nahi izan diozunerako alde egina zuen komunitetik. Nolanahi ere, zuk argi duzu ez zarela kaskasola. Hori ez da bereziki pentsatu behar

duzun deus: sentitu egiten duzu, barrenbarrenetik, zeurez. Izan ere, ile gutxi(ago) luzitzea eta kaskasola izatea ez da inondik ere gauza bera. Gakoa, baina, zera da: zuk argi dakizun hori semeari ikusaraztea, berezko errealitatea uler eta ikas dezan.

Azalpen didaktikoa prest duzu jada. Pertsona helduen artean, gizonaekoetan nagusiki, hiru gauza gerta daitezke: gaztetan bezala ile guztia edukitzea, aitzinaldeko ilea erretiratuta sarrerak izatea eta ile aunitz galduta burusoil gelditzea. “Eta noiz gelditzen dira burusoil sarrerak dituztenak, aita?”. ■



Endika Alabort Amundarain

♦ EKONOMIALARIA ETA PRIMERO DE MAYO-KO AHOLKULARIA

Merkataritza askea, norentzat?

ASKATASUNA aldarrikatzen denean, edozein pertsonari ideia ona irudituko zaio, kontzeptua positiboa baita. *Transatlantic Trade and Investment Partnership* (TTIP) proposatutako merkataritza askeko akordioa da, Europar Batasuna eta AEBren artekoa, merkataritzan askatasun gehiago lortu nahi duena. Negoziazioa isilpean mantendu nahi izan da, nahiz eta azkenaldian gizarte zibilak honi buruzko informazio eske dabilen. Baina, zer da merkataritza askeko akordio bat? Zein da honen helburua?

Laburbilduz, merkataritza askeko akordio batean bi eskualdeen arteko muga-zergak murriztu eta inbertsoreen segurtasun juridikoa babesten dituzten klausulak biltzen ditu. Aldeko argudioak ekonomia fakultateetan irakasten dira; think tank eta enpresa transnazionalen lobbyek honen propaganda egiten dute. Akordio hauek ekonomiaren eraginkortasuna sustatzen dutela diote, muga-zergekin alderatzen baditugu. Muga-zergak aplikatzerakoan sektore bat kanpo lehiatik babesten dugu; lehia murrizterakoan

eta sektorean irabaziak handitzerakoan, sektore babestuek ekoizpen inefizientea sustatuko dute, kontsumitzaileentzako garestia izanik. Merkataritza “askeko” ekonomia batean, enpresariak inportazioekin lehiatu behar dute, merkeago ekoiztea esportazio eta lehiarako pizgarri bat izanik. Akordio hauen aldeko leitmotiv hau hamaika bider aztertu eta errepikatu da azken hamarkadetan.

Gaur arte ez da enpirikoki ziurtatu merkataritza askeak gizartearentzako ongizatea dakarrenik; arrakasta kasuak aipatzen dira, baina ez da babesten duen teoriarik frogatu. Kasuekin egiaztatzen dena da arrakasta ekonomikoa lor daitekeela (batez ere ikuspuntu neoliberalaren aldetik), baina ez dira sorturiko arazo ekonomiko, sozial eta ekologikoak kontutan hartzen. Akordio berri honen atzean estatua eta bere erregulazioak minimizatu nahi dira, lehia eta efizizientziaren aurka egiten dutelako, merkataritza oztopatuz; sektore pribatuak egiten duena, aldiz, eraginkorra delako: hau neoliberalismoaren falazia handienetako bat da.

Azken finean, kapitalaren irabazi tasa mantentzeko esku pribatuetatik at dauden sektoreak pribatizatu behar dira, dauden kontrolak merkatuaren esku ikustezinaren menpe uztea; hau da merkataritza askeko akordioaren azken helburua, ez hazkundera, enplegua ezta ongizatea ere. Gainera, negoziatzaileen ustez demokrazia ez da helburu hauekin bateragarria. Ekonomiaren atzean ideologia ezkutatzen ari da. ■

Gaur arte ez da enpirikoki ziurtatu merkataritza askeak gizartearentzako ongizatea dakarrenik; arrakasta kasuak aipatzen dira, baina ez da babesten duen teoriarik frogatu



Inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonaurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidalak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com





ERDIKO KAIERA

PAREKIDETASUNA MUSIKAN

Oholtzako haragietatik harago

Bertsolaritzan, literaturan eta beste arte-adierazpen batzuetan gertatu bezala, musikagintzara ere ari dira iristen, pixkana-pixkana, feminismoaren aldarriak, berdintasunaren aldeko ekimenak. Oro har, emakume musikarien jarduna ipini du erdigunean azken urteotako mugimenduak: dela horien funtzioa taula gainean, dela horien ikusgarritasuna hedabideetan... Musika, ordea, agertokian gertatzen dena baino askoz gehiago da, eta oholtzako haragietatik harago joan beharra azpimarratu dute zenbaitek.

| DANELE SARRIUGARTE MOCHALES |



Bikini Kill taldea Riot grrrl mugimenduko banda garrantzitsuenetakoa izan zen. 1990eko hamarkadaren hasieran aldarrikapen feministak erdigunean jartzea lortu zuten eta mundu osora zabaldu zen haien erreda.

“MUSIKA EZ DA noten segida soilik”. Leire Ziluaga musika-kritikari eta zalearen hitzak dira, eta horretan behintzat, bat datoz doinu-artearen ikuspegi kritikotik jorratu duten guztiak: musikak komunitatea sortzen du, identitate pertsonala eta kolektiboa eraikitzen laguntzen du, eta Euskal Herria ez da salbuespen.

Ziluagak gehiago dio: “Kontzertu bakoitzean komunitate txiki bat sortzen da, eta hor ezartzen eta birstortzen diren botere-harremanek eta jarrerak asko diote guri buruz, gure jendarteari buruz”. Saiotetan ematen diren inertzien kezkak hartzen du bereziki Ziluaga azkenaldian: nork hartzen du espazioa, eta nola? Kontzertu bat antolatzearen atzeko erreproduktzio-lanak –adibidez: musikari eta teknikarien afaria prestatzea– jasotzen al du behar duen aitortza?

Ikus-entzuleen kartografia

Egin dezagun so, hortaz, gure ingurura. Egin dezagun memoria-eriketa txiki bat. Egon ginen azkenengo rock edo punk kontzertuan non jarri ginen, aurrealdean ala atzeko lerroetan? Lehenengo ilaretan ba al zegoen genero-parekidetasunik? Eta emanaldiko ikus-entzule guztiak kontuan hartuta?

Ihantza Orbegozi Igartua musikazale eta kazetariak argazki argi bat egin du: “Punk, rock eta hardcore kontzertuetan, oro har, mutilak dira nagusi, baita lehen lerroetako pogoetan ere. Bestalde, egon badauden neska gutxitan doaz taldean, gehienetan bizpahiru dira, mutil-talde handiago batekin”.

Bestelakoa da irudia azken urtean Getaia eta Zarautz inguruan antolatu diren punk kontzertu feministetan. Ziluaga: “Entzun izan dut emanaldi feministetara hainbeste neska joaten badira, eta besteetara ez, izango dela neska horiei ez zaielako musika benetan gustatzen. Seguru asko, kontua da kontzertu tradizionaletan ez direla eroso eta seguru sentitzen, baina onartzeko zaila da norberarentzat eroso den espazio bat ez dela eroso pertsona guztientzat”.

Aldaketa, muin-muinetik

Zertan izango litzateke ezberdin, ordea, musika-eszena feminista bat? Ainara Santa-

Kontzertuetan nork hartzen du espazioa eta nola?
Saio bakoitzean komunitate txiki bat sortzen da, bere botere-harremanekin

Gai politikoez kantatzean kritikotasuna eta maitasunaz kantatzean topiko erromantikoak?
Pertsonala ez zen ba politikoa?

maria Barinagarrementeria kazetari eta ekintzaile feministaren ustez kantuen mezuak ez dira aski: “Talde bat feminista izendatzen denean izan ohi da emakumeen problematika –eta batez ere indarkeria matxista– aipatzen duelako. Bada hori, baina ez da hori bakarrik. Feminismoa bizi-ikuspegi bat da, dena aldatzen dizu: zure egoteko modua, diskurtsoa, jarrera...”.

Irudikatzen hasita, honako ezaugarri hauek okurrizten zaizkio Ziluagari: “Izan daiteke gorputz- eta identitate-aniztasuna daukan eszena bat, zaintzari garrantzia ematen diona, kontzertu bat antolatzearen atzean dagoen lana ikusgarri egiten duena, eta, oro har, oholatza azpian eta gainean sortzen diren askotariko botere-harremanak auzitan jarriko dituen”.

AEBetan Riot grrrl mugimenduak egin-dakoaren antzeko zerbait, alegia; kontzertuak ez hastea aurrealdean emakumez osatua egon arte, adibidez. Ziluaga ibilia da hango parajeetan, eta aldea nabarmena da: “Taula gainean askoz aniztasun handiagoa dago, eta jaialdietara doan jendeak beste egoteko modu bat dauka. Hori ez dator zerutik, hori gertatu da lan itzela egin dutelako, eta emakume musikariek oso argi daukatelako: gehienak feministak dira”.

Zorionez, berandu ez da beti beranduegi, eta, ildo horri tiraka, Zarautzeko MEFSST kolektiboa buru-belarri dabil duela hiru urtetatik, egoeraren irakurketa kritikoa egin eta musika errebolta feminista sustatzen.

Pertsonala eta politikoa

Izan ere, harrigarria da: musika bezalako esparru batean, Euskal Herrian politikarekin hain lotura estua izan duena, orain ari da loratzen kontzientzia feminista orokorragoa, eta nekez.

Kasu baterako, Santamariak argi ikusi du, musikagintza eta maitasun erromantikoaren arteko loturei buruz egindako ikerketan, pertsonala ez dela politikotzat hartzen, lelo hori izan arren feminismoaren oinarritzko aldarrikapenetako bat: “Entzuleei ez die kontraesanik sortzen maitasunaz aritzean betiko topikoak errepikatzen badira, nahiz eta musika talde berberak, gai jakin batzuei buruz, diskurtso kritikoa landu. Esparru



SAIOA CABAÑAS / EMAROCK

**Gorputz eta identitate
aniztasuna, zaintzari garrantzia
ematea eta botere-harremanak
auzitan jartzea dira
bestelako eszena sortzeko
oinarrietako batzuk**

Emakumeak pogo-dantzan: zergatik ez da hain ohikoa irudi hau? laz Zarauzko Putzuzulon bigarren aldiz antolatu zuten MEFSST!! jaialdian hartu zen argazkia. Maiz beste kontzertuetan egoera deserosoak sortzen dira emakumeentzat, baina Euskal Herriko kontzertuetan ere ari da pixkanaka ikuspegi feminista indarra hartzen.

publikotik eta politikotik at kokatzen da oraindik pertsonala, eta, gainera, maitasunaren kasuan, ez da ikusten eraldaketa gauzatu daitekeen eremu bat bezala”.

Ziluagaren ustez, auto-indulgentziarekin amaitzeko unea iritsi da: “Geure buruari galdetu beharko genioke ea feminismoarekin zer pasatu den hemen, batez ere musika bezalako eszena hain politizatu batean. Era berean, galdetu beharko genuke ea benetan eszena hain politizatu izan den, edo zer gertatzen den politika erretorika bilakatzen denean. Esanguratsua da feminismoa sartu ez izana erretorika politiko horren barruan, derrigor jorratu behar ziren gai-zerrendan”.

Abesti guztiak dira amodio-kantu

Santamariaren iritziz, arreta handia eskaini behar zaio maitasun erromantikoaren ideologiari, hain zuzen ere, bizi dugun gizarte-antolamendu desorekatuak indarrean jarraitzeko engranaje nagusietako bat delako: “Iruditzen zait, orokorrean, genero sistemaren zapalkuntza, gazte mailan, maitasunaren bidez haragiztatzen dela, batez ere. Horri gehitu behar diogu zer-nolako garrantzia daukan musikak kolektibo baten parte sentitzeko orduan”.

Baina zertan datza maitasun erromantikoa? Bikote harreman heterosexuala du eredu; betirakoa, monogamoa, idilikoa. Hori da harremanik garrantzitsuena, erdigunean jartzen dena. “Eredu horrek lotura zuzena du gizon eta emakumeen arteko mendekotasun harremanekin eta baita emakumeen kontrako indarkeriarekin ere. Bestalde, sistema ekonomikoari ez datorkio batere gaizki. Zer izango litzateke musika-industria osoa maiteminek gabe?”.

Edonola den, maitasun erromantikoaren ideologiak gai guztiak blaitu ditu, ez bakarrik harreman afektiboen ingurukoa. Santamaria: “Gatazkak, hala nazio gatazkak nola klasearenak, isla handia izan du euskal musikagintzan, eta hori guztia oso erromantikoki kokatu izan da: gudariaren figura, askatasunarena, herriarena... Adierazgarria da hori gertatu izana, eta horrek ekarri diona diskurtsoari eta iruditeriari: emakumea zaintzaile, gizona borrokalari”.

0 puntua: Eztabaida mahai gainera

Horren guztiaren aurrean, zer egin? Bat datoz elkarrizketatuak: duda plazaratzea da lehen pausoa. Santamaria: “Hasiko gara maitasuna eta pertsonala politikoki kokatzen, eta gero ikusiko dugu bakoitza noraino heltzen den. Baina oinarritzakoa da jakitea maitasunarena, adibidez, eraikuntza bat dela. Hori da 0 puntua eta hori gabe ezin da ezer egin”. Horrez gain, funtsezkoa da bestelako kultur erreferente batzuk sortzea, bestelako maitasun-eredu batzuei buruz hitz egingo dutenak.

Eta espazioak, nola eraldatu? Ziluaga: “Ondo legoke kontzertu-antolatzaileek eta aretoek gaiaren gaineko ardura hartzea, gizonen kontzertuetan betetzen duten espazioa zalantzan jartzea, eta guk espazioa geure egiteko estrategia konpartituak sortzea”. Ziluagaren arabera, erronka jo behar da, eta zeharo naturalizatuta dauden jarrekarik ere auzitan jarri, esate baterako: zergatik egin behar dira pogoak beti lehen leroan? “Gero ez dakit zer akordiotara helduko garen, baina hasteko eta behin, hori dena eztabaidagai ipini behar da”. ■

Egunsentiaren Kantak

KONTZERTUA

**PIER PAUL BERZAITZ
ESTITXU PINATXO
MAGALI ZUBILLAGA
ERRAMUN MARTIKORENA**



VILLABONA

APIRILAK 17

GUREA ANTZOKIA

20:30 ean

8 € aldeaz aurretik
10 € leihatilan

Antolatzailea:



argia

antza



EL DIARIO VASCO

Laguntzaileak:

Sarrerak:

- Lehiatila / takila
- Villabonako Amasa kafetegian
- Ticket.kutxabank.es

Laborategi (bio)politikoa dokumentatzen

Kortxoeneako kideek (Gros, Donostia), dokumental batean kontatu nahi dute gaztetxeak aurki beteko dituen bost urteotan bizi izan duena. Horretarako, crowdfunding kanpaina abiarazi dute www.karena.eu webgunean. Eraikinaren historia, gaztetxean sortu eta garatu diren proiektuak eta gune autogestionatu batean bizitzeak esan nahi duena azaldu nahi dute lanean.

| LIDE HERNANDO |

“GUTXI DIRA barruan ezer gordetzen ez duten eraikinak; hutsune hori betetzeak ematen dio izatea”, esanez ematen dio hasiera emakume baten ahotsak dokumentala aurkezteko egin duten spotari. Eta ez dira hitz hutsalak: hain zuzen, orain ia bost urte okupatu zutenetik gaztetxeak barruan zer gordetzen duen, hutsune hori nola bete duten kontatzeko asmoa dute lan honekin. Kontxita Beitia da off-eko ahotsa egiten duena; emakumezko, adineko, ikastolen aitzindari, ez zegoen bera baino aproposagorik espazio horren izenean hitz egiteko.

Ibilbidea dokumentatzeko gogoa

Eraikina 2010eko ekainean okupatu zuten. “Gaztetxea sortzeko ideia izan genuenok, 2005ean argitaratu ziren okupazioari buruzko bi argitalpenetan parte hartutakoak ginen: Donostia bi urtez okupatuz DVDA eta Donostia 28 urtez okupatuz liburua”, dio Beñat Apalategi gaztetxeako kideak eta, Markel Ormazabal eta Joseba Parronekin batera, dokumentalaren arduradunak. “Beraz, kasu honetan ere hasieratik izan genuen Kortxoenean jazozen zen oro filmatzeko eta dokumentatzeko joera, noizbait hori formaturen batean bilduko genuelakoan”.

Iaz ohartu ziren ikus-entzunezko material dezente pilatua zutela, eta horrekin zerbait egin beharra zegoela pentsatu zuten. “Hainbat eztabaidaren ostean, dokumental bat egitea erabaki genuen. Asanbladan planteatu eta baieztua jaso ostean, gu hiruok hasi ginen buru-belarri horretan”. Parron Gogo Ekoiz-

Gaztetxearen historia kontatzetik harago, dokumental autokritikoa egin nahi dute, eztabaida piztuko duena

penak ekoiztetzeko kide denez, grabaketa eta produkzio lana jada esleitua zuten. “Genuen materiala aztertzeaz gain, gaztetxeako kide batzuei elkarrizketak egiten hasi ginen”.

Egun, gidoiaren bizkarrezurra zehaztua izateaz landa, lana mamituko duten gainerako zertzeladak eztabaidatzen ari dira. “Dokumentalaren hari narratiboa, eraikinaren izenean hitz egiten duen off-eko ahotsa da. Eraikinak izan dituen hiru aldi historiko nagusiak azalduko ditu: kortxo-fabrika izan zenekoa, ikastola izan zenekoa eta egun gaztetxea denekoa”, dio Apalategik. “Interesgarria iruditzen zaigu espazioaren historiaz hitz egitea; izan ere, uste dugu eraikina izan zena gaur egun ere badela: fabrika zenean, batez ere emakumezkoen langile borrokaren lekuko, eta ikastolaren antzerki areto zenean, kultur sorkuntza parte-hartzailearen lekuko”.

Halakoxea baita gaur egun Kortxoenea gaztetxea. Batetik, gizarte-borroka ugarik lekua dute bertan, hala nola AHTaren aurkako plataformak edota Donostia 2016 Desokupatu kolektiboak. Bestetik, kultur sorkuntzan apustu handia egin du, musikaldeentzako entsegu lokala ipinita, ikuskizun asko eskainita, edota adierazpen kultural ezberdinak jorratzen dituzten taldeei bertan biltzeko aukera emanda. “Hala ere, gure helburua ez da denbora honetan lortu duguna harrotasunez erakustea; ez diogu autokritikari uko egin, eta lan honek bost urte horien balorazioa izatea du asmo, hortik hobekuntzak atera ditzagun”.



Kortxoenearen urteotako historiak dokumentu grafiko ugari utzi du. Horiez gain, gaztetzeari parte hartzen duten pertsonekin elkarrizketak egiten ari dira dokumentala osatzeko.

Finantzazioa ere auzolanean

“Dokumentala planteatzen hasi ginen unetik ikusi genuen horrek gastu batzuk edukiko zituela, guk geuk berdindu ezingo genituenak”, dio Apalategik. “Batetik, grabaketetan aritutako kideen lana ordaindu beharra dago, bestetik, DVDa sortzeko dakartzan gainerako gastuak. Horregatik jo genuen crowdfundingera. Gainera, gaztetzeari filosofiairekin bat datorren praktika da, azken finean, beste konpromiso eredu bat eskatzen duen auzolana”. Horiez gain, irabazirik lortuko balute, gaztetzeari dirupoltsa sortzera bideratuko lukete, DVDa aurkezteko bidaia egiteko, edota gaztetzeari hobekuntzak egiteko.

Behar duten dirua lortuz gero, eta proiektuak aurrera jarraitzen badu, 2015eko ekainean estreinatu dezaketela aipatu du, gaztetzeari bosgarren urteurrenerako, alegia. “Baina ez da urteurrena ospatzea dokumentalaren helburua, beraz, aurkezpenak ez du zertan data horrekin bat egin”, argitu du Apalategik. Lan honekin eztabaida kolektiboa piztu nahi dute; izan ere, azken urteotan ikus-entzunezkoen kontsumoak indibidualizazioa jo du, besteak beste Internetek ekarri dituen aldaketan eraginez; eta galdu egin da ikusitakoa gizartean eztabaidatzeak dakarren aberastasuna.


Gune autogestionatuak, ugari eta askotarikoak

Jakina da gure gizartean gune autogestionatuak egoerak onera eta txarrera egiten duela etengabe, errusiar mendiak bezala. Kortxoeneako kideak dioenez, ordea, “esan genezake gaur egun Euskal Herrian oso proiektu interesgarriak daudela eta, batez ere, askotarikoak: hasi Gasteizko Errekalorretik eta Gernikako Astraraino. Donostiaren kasuan ere, Kortxoeneaz eta Letamanez gain (egun dagoen gaztetzeari iraunkorrena, Intxaurrondon), Txantxarreka (Udalak Antiguon utzitako espazioa) edota Itxasgain ditugu (Aldapetako etxe sozial okupatua). Uste dugu duela urte batzuk egon ezin zitekeen ugartasuna dagoela”.

Argi dio Kortxoeneako lagunek kareña.eu webgunean argitaratu duten testuak: “Gune autogestionatuak egitura urbanoaren parte ageriko bilakatu dira (...) espazioa beraren erresistentzia hutsetik, inguratzen duten gainontzeko eremuekin harremanean eta elkar-eraginean antzematen ditugu egun”. Gizartean gertatzen diren aldaketa azkarren ondorioz, “gune autogestionatu berri hauek laborategi (bio)politiko komun, ireki eta nomada gisa pentsatu eta ulertu” behar direla gehitu dute, eta Kortxoenea horren adibide bikaina da. Hori dokumental batean nola islatu, haien erronka. ■

Literatura

Odol mamituak
Alaine Agirre
Elkar, 2014



Irakurri nola erabili sendagai hau eta galdetu botikan

SEGURU ZAUDE? Liburu hau irakurri nahi duzu? Uste duzu ez duela eragin edo ondoriorik izango zutan? Munduko Osasun Erakundeak XXI. mendearen hasieran esan zuen buruko gaixotasunen kopurua handitzen joango dela mende honetan zehar. Depresioa da buruko gaixotasun zabaldua eta 2020rako ezgaitasunerako bosgarren kausa izatetik bigarrena izatera pasako zela esan zuten, eta honen aurretik bihotzeko gaitzak baino ez zirela egongo. Liburu honetako protagonistak psikosia du baina, ez depresioa. Errealitatearekiko ukipen falta. Haluzinazioak, eldarnioak eta pentsamenduaren nahasteak. Eta bost kapitulutan kontatzen digu bere prozesua, 100 ataletan eta alfabetoaren letra guztiak erabiliz izendatzen dituen pertsonaien laguntzarekin, hondoa jo zuenetik zulotik irten zenera arte.

Duela hiru urte argitaratu zuen Itxaso Martinek *Ni, Vera* eleberria. Bertan emakumeen eta zoramenaren arteko lotura agertzen zen helduarotik zahartzarora eta perspektiba historiko batekin. Alaine Agirreren lanean ordea, emakume gaztea eta bere bilakaera psikologikoa dira protagonistak eta subjektu haragiztatua da ardatza, “Gorria” deitzen duen minak, gaixotasunak, bere gorputza gorpu zelan bihurtzen duen eta gorpua gorputz izatera nola bueltatzen den kontatzen zaigu bere lehen eleberrian.

Liburuaren azalean daude gakoak, haien artean *Odol mamituak* izenburua, gorputzaren fisikotasuna agerian jartzen duena, bere jario eta okelekin: “Eta odolarekin erdi disolbatuta ateratzen zaizkizu arantza, azazkal, metal, kristal zatiak; gatzatutako odola da, mamitua, baina, aldi berean, Gorria da, zure barrutik, zaurietatik, irteten”. Hala ere, gaixorik, itota eta lokartuta dagoenari bihotza eta

klitoria esnatuko zaizkio narrazioak aurrera egin ahala.

Hiru argazkitan laburbil daiteke gure protagonistaren bidaia: “Mairidireen kontrako gerran” ohean izerdi, odol eta negar malkotan blaituta eta akituta dakusagu hasieran. “Animalia gosetua hiltégian” psikiatrikoan egunean gosea eragiten dioten zazpi-zortzi pilula hartzen ditu eta etxeko zapatiletan joaten da talde-terapiara gero. Azkenik, “itzalean itsatsirik dauzkan harriak arrastaka daramatza” eta bizitzaren puzzlea osatu nahian dabilen neska gaztea da, “iraganeko konkistatzaileen arrastoak” gogoratuz baina bidea egin ez.

Hitz jario eta zerrendak psikiatrarekin dituen elkarrizketekin tartekatzen dira, esaldi bakarreko atalak orri bat baino gehiago dituztenekin, lehen-bigarren-hirugarren pertsonetan narratutako pasarteak daude, hasieran identifikazioa bilatzen dutenak ni-a eta zu-a tartekatuz, eta istorioan aurrerago distantzia ipintzen dutenak, umore printzak eta sexu eszenak tartekatuz, olatuen joan-etorriarekin gertatzen den bezala.

Beraz, ondo pentsatu liburu hau irakurri nahi duzun. Esan bezala, XXI. mendeko gaitzak dira antsietatea, depresioa, egungo bizimodu eta harreman motek ekarri dizkiguten gaixoaldiak. Eta agian zu horrelako batean zaude-egon zara-egongo zara, edo zure inguruko baten bat. Eta mingarria izango da hau irakurtzea. Zure barruan zerbait mugitu daiteke. Hortaz, alde aurretik irakurri nola erabili sendagai-eleberri hau eta galdetu botikan –Miren Agur Meaberen hitzaurrea irakurri–, abisatu dizugu. ■

Amaia Alvarez Uria



Harribitxia

Usandizagaren 'La Llama' operaren berrestreinaldia.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Juan Jose Ocón. **Andra Mari Abesbatza.**

Zuzendaria: Jose Manuel Tife.

Bakarlariak: Sabina Puértolas, Mikeldi Atxalandabaso, Damián del Castillo, Elena Barbé, Maite Maruri. **Lekua:** Gasteizko Principal Antzokia. **Data:** martxoaren 16a.



Usandizaga hil zenetik 100 urte bete dira aurten.

JOSE MARIA USANDIZAGAREN heriotzaren mendeurrena ospatzen da aurten, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa omenaldi polita egin dio bere azkeneko obra, *La Llama* izeneko opera berrikusi, berrestreinatuta eta grabatzearekin. Askorentzako sorpresa izan da konpositore donostiarraren lan zoragarri hau, benetan oso gutxitan antzeztu baitzen: Donostian eta Madrilan 1918an eta Bartzelonan 1932an. Handik aurrera, auskalo zergatik, kasurik ez.

Horrexegatik, ideia ezin hobea izan da obra hau berreskuratzea eta publikoari eskaintzea, zinez lan distiratsua delako eta, beraz, beste ospe bat merezi duelako. Juan Jose Ocón egin du berrikuspen kritikoa, eta, emaitza ikusita, lan txalogarria egin du, dudarik gabe. Horrez gain, berrestreinaldi honen zuzendaria izan zen, eta nabaritu zen lanaren ezagupen sakona, talde osoaren onena ateratzen jakin baitzuen.

Oso gaztea zen Usandizaga opera hau burutu zutenean, 27 urte besterik ez zuen –28 urterekin hil zen–, baina aparteko heldutasun musikala erakusten du partiturak. Orkestrazio koloretsua, harmonia klasikoa baina modernitate puntu bat duena, inpresionismoaren ukituarekin, folklorea eta klasizismoa uztartzen dituen dotoreziaz... hori guztia aurki dezakegu Usandizagaren musikan, eta bereziki opera honetan.

Berrestreinaldian interprete eraginkorrak aurkitu genituen. Sabina Puértolas soprano nafarrak Tamar pertsonaia elegantea egin zuen. Oso ahots malguta du, fina. Garrantzi handia ematen die ñabardurei eta horrek interesa ematen dio bere interpretatzeko erari. Bikain. Mikeldi Atxalandabaso, Adrianen rolean, intentsitatea adierazi zuen uneoro, pertsonaiaren alde dramatiko nabarmenduz. Elena Barbé donostiarraren kantu delikatua oso ondo egokitzen zitzaion uraren izpirituaren pertsonaiari. Agian taxu pittin bat gehiago ondo etorriko litzaiotke eta jestualitatea gehiago lantzea. Miren Urbietak Vegak paper txiki bat egin zuen, narratzailearena hain zuzen ere, baina denbora gutxian garbi utzi zuen bere kantu distiratsua. Eta gainontzeko bakarlariak, Damián del Castillo, Fernando Latorre, Maite Maruri eta Xabier Anduaga gazteak, kalitate bokala eskaini zuten. Andra Mari Abesbatzak, ohi bezala, biribiltasuna eman zion osotasunari. Ea hemendik aurrera gehiago entzuten dugun obra xarmagarri hau. ■

Montserrat Auzmendi



Ekain berri




**Euskal
Kulturaren
sustraiak**

Sarrerren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11



Euskal Herria ezagutuz

KURTZETXIKI

Handik goitik Arrasate baino gehiago ikusten da

Urrutira joateko beharrik barik, herrian bertan izaten dira naturaz gozatzeko lekuak. Arrasateko Kurtzetxiki menditik (531 m), esaterako, Leintz bailara osoa eta Aizkorriko mendilerroa ikus daitezke. Azken urteetan utzita egon den ingurunea berreskuratzeko, Arrasateko Udalak mendiko 60 hektarea bereganatu ditu eta herriko elkarteekin batera, Kurtzetxikira joateko ibilbide bi atondu ditu.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

Argazkiak: Arrasateko Udala



INDUSTRIA GARAPEN HANDIKOA da Arrasate; lanerako eta zerbitzueta-rako herri bihurtu da azken hamar-kadetetan, eta ingurumenaren zaintza bigarren mailan geratu da. Herriko mendizale eta naturazaleek kezka hori behin baino gehiagotan agertu dute, eta egoerari buelta emateko pausoak ematen hasi da udala. Arrasateko ingurune batzuk babes bereziko gune izendatu dituzte herri ordenaziorako plan nagusi berrian, eta txoko horietako baso-habitata berreskuratu eta herritarren esku uztea da helburu nagusia. Berreskurapen lan horietan, Arrasateko Udalarekin batera, Besaide mendizale taldeak, Naturtzaindia elkarteak eta Sustrai Berri elkarteak lan egin dute.

Babesguneetako bat Kurtzetxiki mendia da, Larragainen. Aitor Zubiaga Besaide mendizale taldeko kidearen berbetan, “nahiko jaregin-da” egon den ingurua da. Berezko baso-habitatan artadia egon da Kurtzetxikin, baina duela 30 urte inguru sute bi egon eta gero, pinua landatu zuten, eta ordutik pinudia izan da nagusi. Arrasateko Udalak 60 hektarea erosi dizkio Kutzari, eta artadia berreskuratzeaz gainera, abeltzaintzako lurak eskaini eta ibilbideak atondu ditu Kurtzetxikira igotzeko.

Ibilbideok ospitale atzean hasten dira, Zalduspe kalean, eta Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatutakoak dira; laburra SL motakoa eta luzea GRkoa. Federazioa bera arduratu da ibilbideetako seinaleztapenaz.

Ibilbide laburra: artadi zaharra

Joan-etorrian, 6,6 kilometro dauzka ibilbide honek. 300 metroko desnibela dauka, eta familia giroan joateko aproposa da. Bide honetatik joanez gero, elurzulo albotik igaroko gara, eta Kurtzetxikiko artadi zaharra zeharkatuko dugu. Baso berezia



Kurtzetxikira igotzeko ibilbide laburrak Arrasateko artadi zaharra zeharkatzen du. Baso berezia da, klima atlantikoan ez baita oso arrunta artadiak egotea; giro beroagoetako habitata izan ohi da.

da berau; artadi kantauriarra. Klima atlantikoan ez da oso arrunta artadiak izatea, klima beroagoetako habitata baita. Leintz bailara osoan, Arrasatekoak dira artadi bakarrak: Udalatxen eta Kurtzetxikin daude, hain zuzen. Berezko natur ondare hori ikusirik, Kurtzetxikiko artadia babestea eta berriak jaiotzeko lan egitea erabaki dute.

Arrasateko Udalak 60 hektarea erosi dizkio Kutzari, eta artadia berreskuratzeaz gainera abeltzaintzako lurak eskaini eta ibilbideak atondu ditu Kurtzetxikira igotzeko

Ibilbide labur hau ezagutzeko, apirilaren 26an mendi iteera anto-


latu du Besaide mendizale taldeak. Goizeko hamarretan irtengo dira Arrasateko plazatik. Herritar guztiei begirako deialdia egin dute, eta parte hartzeko ez dago aurretiaz izena eman beharrik.

Ibilbide luzea: Bedoña auzoa

Ibilbide luzea hamaika kilometrokoa da, eta Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako mugetatik igarotzen da. Laburra bezala, Zalduspe kaletik hasten da, eta aspaldi errepide garrantzitsua izan zen Erregebidea hartzen du, Oñatiko Zubilaga auzorantz. Bidea Beasainerraino heltzen da, eta Frantziara joateko oso arteria garrantzitsua izan zen garai batean.

Ibilbide hau egiteko, Urkulurako bidea hartu eta urtegira heldu baino lehen Bedoña auzorantz desbideratuko gara. Bedoña ondoren kontserbatuta dagoen Arrasateko landa auzoetako bat da, eta

Babeslea: Arrasateko Udala





Bedoña (goiko ezkerreko argazkian) ondoen kontserbatutako Arrasateko landa auzoetako bat da, eta ikusteko moduko gauza asko du, besteak beste Koldobika Jauregi eskultoreak egindako dragoia (eskuman). Beheko argazkian, Kurtzetxikiko gailurra.

aldenduta dagoen Udala auzora egiten dituzte txangoak; haatik, askoz gertuago dagoen Kurtzetxiki herriko natura-ondareaz jabetzeko leku egokia izan daiteke.

Beste ibilbide batzuk

Kurtzetxikikoez gainera, hemendik aurrera Arrasateko beste bide batzuk berreskuratzeko asmoa dute udalak eta Besaide mendizale elkarteak. Aitor Zubiagak azaldu duenez, mendizale elkarteko arduretako bat ibilbide zaharrak dira. “Herri bide direnak herri egiteko bide izan daitezke”.

Besaidekoek udalera 2010ean jo zuten lehenengoz, bide horiek berreskuratzeko proposamenarekin. Udala bide publikoen inbentarioa egiten ibili da azken urteotan, eta horrek ere lagunduko du hemendik aurrera haiek berreskuratzeko. Asmoa Arrasateko auzoak batu eta herriaren bueltan eratzun bat egitea da. Horrekin batera, herri-gunetik auzo guztietarako herri bideak berreskuratu gura dituzte, sarea gorpil forman osatzeko. ■

ikusteko moduko gauza asko gorde du. Natura ikuspegi ederraz gain, han daude Koldobika Jauregi eskultoreak egindako dragoia, eta Bedoñako seme Juan Arana Lora-mendi idazlearen omenezko monumentua.

Andra Mari Zuri ermita eta Eulalia parroikia –bertan Santa Olaia esaten diote– ere Bedoñan daude. Arrasaten baserri gutxi bizi dira baserritik; Bedoñan hiru. Esaterako, Artazubiaga baserrian mahastiak dituzte, eta Otxia izeneko txakolina egiten dute.

Bedoñatik gora jarraituta igokoa gara Kurtzetxikiko gailurrera, eta bidean ibilbide laburrekin bat egingo dugu. Beheranzko ibilbidea bera da bi kasuetan: San Andres auzora doana.

Tontorretik zer?

Kurtzetxikiko gailurrean dago mendiarren ingurune lauena. Hango larreak herriko abeltzaintzako gunea izango dira laster, eurek hala eskatuta.

Txundigarria da Kurtzetxikitik zenbat gauza ikusten den, herri-gunetik hain hurbil dagoela kontuan izanda gainera. Arrasateren ikuspegi nahiko zabalaz gainera, Leintz bailara eta Aizkorri mendikatea ikusten dira. 360 gradutan, tontor esanguratsu asko bistaratzen dira bertatik: Aloña, Anboto, Aizkorri, Udalatx... Gailur horien izenekin informazio panela jartzeko asmoa dute.

Herriaren eboluzioa ulertzeko gune egokia

Paisaiarekin batera, Arrasateko inguruaren bilakaera ulertzeko aukera proposa eskaintzen du Kurtzetxikik: nekazaritzako lurak zelan hartu dituen industriak, pinuak ingurunean daukan lekua, haranen banaketa...

Kurtzetxikikoa ikuspegi egokia da horiek guztiak hautemateko. Horregatik, udaleko eta Besaideko ordezkariak inguruak hezkuntzan izan dezakeen balioa nabarmendu dute. Normalean, ikastetxeek Arrasatekan kanpora edo erdigunetik



Bisitatatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Bilbon ernetzear den kulturaldia

EUSKAL SORKUNTZAREN udaberriko hitzordua bilakatzeko asmoz jaio da Loraldia, Bilbon apirilaren 23tik 26ra ospatuko den kultura jaialdi oparoa. Euskal kultura garaikideaz jantziko da hiria lau egunez, datozen urteetan egitasmoa sendotzen joateko erronkari helduta.

Udazkenaren azkenetan, euskal kulturgile eta kultura zaleen urteroko zita da Durangoko Azoka. Loraldiaren antolatzaileek baina, Durangoko “transmisioa eta ikusgarritasuna” faltan sumatu izan dute udaberrian, eta hain justu, hutsune hori betetzeko asmoz aurkeztu dute egitasmo berria.

Guztira hamazazpi ekitaldi eskaini, eta 50 sortzaile baino gehiago bilduko ditu jaialdiak. Honela, sorkuntza-adierazpide anitziz egingo zaie lekua lau egunetan: antzerkia, literatura, musika, arte plastikoak, dantza eta bertsolaritza, besteak beste.

Ez da kasualitatea jaialdia Bilbon erditu izana. Antolatzaileek webgunean azaldu dutenez, “munduko modernitatearen ikurra, euskararen historian aitzindaria eta Gure Euskal Hiria” delako hautatu dute. Hiriaren erdigunean izango dira ekitaldi gehienak gainera. Euskara hiriaren erdiguneaz jabetzea da xedea, euskal kulturaren zentralitatea irudikatzea.

Abbadiaren Lore Jokoak abiapuntu

XIX. mendean Anton Abbadiak bultzatutako Lore Jokoak ditu oinarri egitasmo berriak. Ipar Euskal Herrian euskarari ikusgarritasuna emateko sortu zen ekimena, poesia lehiaketak eta kultur ikuskizunak barnebiltzen zituen. Lekukoa hartu eta jarraipena Bilbon ematea da Loraldiaren asmoa.

Jaialdiari hasiera emateko Abbadiaren omenez berariaz sortutako ikuskizuna estreinatuko du Kukai dantza taldeak. Aitor Mazo aktorea sartuko da Abbadiaren paperean eta Arkaitz Minerrek jarriko du musika. “Dantza eta teatroaren bidez XIX. mendeko kulturgileak berpiztuko dugu Arriagan”, azaldu dute.

1901ean Miguel Unamunok Bilboko Lore Jokoetan euskararen aurka botatakoak ere gogoan hartuko dituzte. Apirilaren 26an, duela mende pasa esandakoei erantzungo diete Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek Kafe Antzokiko bertso-bazkarian, Lutxo Egiak idatzitako gidoiaren bueltan eta Mikel Martinez gidari lanetan jarrita.

Handi jaio, hazteko

Esku bete aukera izanik, guztiak ezin aipatuko ditugu hemen. Kasu ematekoak dira hala ere, apirilaren 24an Zabalguneke merkaturatzen egingo den kulturgintzako eragileen topaketa, apirilaren 25erako Okela Sormen Lantegiak antolatzen duen arte plastiko eta bisualen erakusketa Rekalde aretoan, eta azken eguneko *Bilbao-Baobila 2115* emanaldia; Harkaitz Canok ehun urte barruko Bilbori idatzitako testuaren inguruan kantatu-



Loraldia

Noiz: apirilaren 23tik 26ra.

Non: Bilbo.

Webgunea: Loraldia.eus

ko dute Uxue Alberdi eta Oihana Bartra bertsolariek, Gorka Benitez, David Cirgu eta Josu Goiko musikariek batera.

Beste estreinaldirik ere izanen da: Metrokoadroka antzerki taldeak *Sua izan nahi* obra eta Kukai eta Tantanka dantza taldeek *Hazipenen pozak* ikuskizuna taularatuko dituzte hurrenez hurren apirilaren 25ean Pabiloi 6an eta Guggenheim plazan apirilaren 26an. Euskal zinemari eskainitako saioa ere egongo da hileren 25ean.

Musika zaleentzat, besteak beste, Itoiz taldearen omenezko kontzertua izango da ostiralean Kafe Antzokian, Espaloian, Hutsa eta Joseba Irazokiren eskutik; eta larunbatean Campos Kupula aretoan Lurra, 22M2 eta Piztiak taldeak arituko dira, badok.info atariak sustatutako *Badok Geroa* saioan.

Estreinaldirako egitarau mardula osatu badute ere, hurrengo urteetan egitasmoa sendotu eta erreferente bihurtzeko asmoa agertu dute antolatzaileek. Oraingoz, asteburu luze batez bederen, euskal kulturgintza Bilbon lehen lerrora eramango du Loraldiak. Eta antolatzaileek argi dute: “Kimurak ditugu helburu”. ■

Itziar Ugarte Irizar

Hitz gezidunak

INOIZ EZ SORTZAILE	AGIRI BATEKO ATAL BAKOITZA INDIOA	ANTZA, FORMA	 ZALDI ERO	EGUZKIA ALDERAN- TZIZ	* BERAREN HIRUGARREN ELEBERRIA JANGAI, JAKI	HAZI GABEKO UME ERABATEKO NAHASTE
* IZENA MANGA- NESOA						
	UTIKAN! IKASTALDI			BILOAK ... HARTU, LO EGIN		
AUTOPSIA GAIXOTASUN BATEN GUNE			GOGO BIZI MUSEAN JOKATZEKO TXARTEL	IRAINA, DESOHOREA NAFARROA- KO HERRIA		
		UDAREA (AL- DERANTZIZ) OSLOKO BIZTANLE			JARAMON XAFLA BIRIBILA	
ITSASOKO	SORO LASTIMA, ATSEKABE		INOIZ UKITU EZ DENA ESPARRUA			MEGA ARIZKUNGO AUZOA, BAZTANEN
				OSASUNTSU FRUITU BILKETA		PIXKA, PITIN BAT
LANDA, SALBU ASTIRO		LARRU ZATI KONTSO- NANTE ERREPIKATUA			ATZIKI TO- PONIMIKOA HILOBIETA- KO IDAZKUN	
			GIPUZKOAKO UDALERRIA 3,1416		MUSIKA ESTILO AZPI, BEHE	
APAR, HAGUN * ABIZENA				SARRI GIGA		
					FAISAIAREN FAMILIAKO HEGAZTI	

Sudokua

Bete gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

Erraza

7	5			1	6		
6		4		8	3		7
1	3		7				
8	7	6	2			5	
9							8
		1		8	2	3	6
				7		8	1
4			1	9		3	5
		9	8				4
							2

Dedukzioa

Aurkitu hitz ezkutua, zenbakiak hitz bakoitzeko zenbat hizki duen adierazten duela kontuan izanik.

F	R	U	T	A	0
E	R	O	S	O	2
M	U	T	U	R	1
M	A	L	U	R	2
A	F	A	R	I	1
S	A	M	U	R	1

Soluzioak

2	7	7	9	5	8	6	1	3
5	9	3	2	6	1	7	8	4
1	8	6	7	4	3	5	9	2
9	3	2	7	8	7	6	1	5
8	7	4	5	1	9	3	2	6
6	1	5	4	3	2	7	9	8
4	5	8	6	9	7	2	3	1
7	2	1	3	8	5	4	6	9
3	6	9	1	2	4	8	5	7

DEDUKZIOA:
Melo.

E	L	O	R	I	A	G	A	E	P	E	R
A	R	R	A	P	O						
E	M	A	R	O	L	E	Z				
A	T	S	A	R	L	A	R				
I	T	S	A	S	T	A	R				
A	L	T	O	R							
F	O	K	U	A	D	A	M				
D	I	S	E	K	Z	I	O				
M	N										
E	G	I	L	E							
E	K										

Azeribuztanaren logaritmoa

AZERIBUZZTANA –*Equisetum* sp.– landare zaharrene-takoa bada ere, modernoaren zapela jantz dezake.

Bitxia ere bada. Lorerik ez du ematen ugaltze-ko, eta beraz, ezta fruiturik ez hazirik ere. Askotzeko, ugaritzeko, esporak erabiltzen ditu, garoek eta perretxikoek erabiltzen duten bidea. Hezetasu-na den tokietan oparoa den bidea.

Aziendari isatsean lotzen omen zioten azeri-buztana, euli eta ez euli, inguratzen zirenak kolpe-ka uxatzeko. Isatsa motz, nonbait; isatsa gehi buz-tana egoki.

Landareak azalean dituen silize koxkorrak dira bere osagai goraipatuena, sendabide eta osagarri bezala, batik bat. Azeribuztan bat, *Equisetum telma-teia*, esklaboekin batera iritsi omen zen Ameriketara.

Itxura denez, Afrika beltzean adorea, kemena eta bizitasuna puzteko azeri-buztana ahoan murtzikatzeko ohitura zuten; baita digestibo eta afrodisiako gisa ere. Lehen-goan esan nuen “tornularien buz-tana” deitzen diotela gaztele-raz, baita “aro-tzen buz-tana”

ere; itxuraz, lagungarri ona da zauriak osatu eta orbaintzeko, eta langintza horietan aritzen zirenek erruz erabiltzen zuten. Zura leuntzeko eta ezkarda-ren zauria osatzeko aroztegiko belarra, azeribuztana.

Bestelako gaiak ere izan ditzake, kaltegarriak ale-gia. Azienda larria larri ibiltzen da azeribuztanare-kin. Onddo baten erasoaren ondorioz, “palustrina” izeneko alkaloidea sortzen du, eta, gorputzean metatuz, behikundean herrenak eta nerbioekin lotu-tako arazoak ekar ditzake. Tiaminasa entzima ere badu, eta horrek B multzoko bitaminak zapuzten ditu, batez ere B1; gehienbat behor jendean. Geuk hartzerakoan, behintzat, ziurtatu *Equisetum arvense* dela, hori baita gai horietatik gutxien duena.

Azeribuztana modernitatearekin betiko lotuko dutenak logaritmoak dira. Egungo garapen teknolo-giko guztia posible egiteko, kalkulu matematikoen erraztea ekarri zuten logaritmoak John Napierrek proposatu zituen XVII. mendean, agidanean, azeri-buztanaren adartxoaren proportzioan oinarrituta. ■

Equisetum arvense,
azeribuztanaren artean
geuk erabiltzeko egokiena.



JAKOBA ERREKONDO

Amatzako altzoa

ORAINTXE DU sasoia. Ezkur bat. Eguna luze. Giro poli-ta. Hezetasunak azala beratu dio. Barruko mamia puztu da. Hormonen dantza hasi eta hazia hozitu da. Ernatu da. Sustraiak luzatu. Lurraren epela neurtu. Eta gora jo behar. Zurtoinak gora ekingo dio. Hostoak hedatu eta betirako bizitoki izango duena ezagutu. Haizeak, eguz-kiaren bideak, ilargiaren keinuak... Auzoko izango dituen diosala egitea ez zaio, inola ere, ahaztuko.

Kanarietako palmondoak (*Phoenix canariensis*) ama-tza lanetan, hosto tarteko altzoan hartu du haritz kan-duduna (*Quercus robur*). Laster igarri zion ezkurak, sustraiak lurra ukitu ordurako: ama ona izango du. Ederki etorriko da. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Txokolatea, gizakientzat ona baina alboko animalientzat ez



AZKEN URTEOTAN artikulu ugari agertu da txokolatearen onurez. Txokolate beltzak, hau da, %70etik gora kakaoz osatuta dagoenak, potasioa, magnesioa, kaltzioa, B3 bitamina eta epikatetxina eta prozianidina antioxidatzaileak ditu, besteak beste.

Antioxidatzaileek, hanturaren eta tronboen aurkako eragina izateaz gain, odol presioa erregulatzen dutenez, bihotzerako oso lagungarriak dira. Dena den, onura horien berri zehatzagoa izango dugu Bostongo (AEB) ospitale batean abiatutako ikerketa, inoizko zabalena, burututakoan:

18.000 boluntariok hartuko dute parte, eta 2018 arte iraungo du.

Baina ona al da txokolatea ondoan ditugun txakurrentzat eta katuentzat?

Erantzuna ezezkoa da. Arrazoiak kakaoak duen teobromina izeneko molekulak datza; batez ere txokolate beltzean dago teobromina. Gure gibelak azkar deuseztatzen du, baina ez da gauza bera gertatzen katu eta txakurren kasuan: haien gibelak ezin dute teobromina behar bezain arin prozesatu, eta ondorioz molekula metatuz doa. Hala, txokolate tableta erdi batek heriotza eragin diezaioke txakur txiki bati, eta ez edonolako sufri-menduarekin gainera: hil aurretik, oka, beherakoa, takikardia eta konbul-tzioak gertatzen dira. ■

Izerdi egitean usain hobea ematen duen perfumea

BELFASTEKO Queen's Unibertsitateko ikerlari talde batek lortu du perfume batek usaina komeni den momentuan askatzea. Hitz bitan esateko, perfumeak ur molekulak nabaritzen baditu usain gehiago askatzen du bestela baino.

Izerdi egitean, izerdiarekin batera ura askatzen denez, perfumearen usain ioiak ohi baino indar handiagoz aktibatzen dira, eta horrek izerdi usainari aurre egiten lagundu dezake.

Perfumegintzan ez ezik beste alor batzuetan ere aplikazio interesgarriak izan ditzake Belfasten garatutako teknologia horrek. ■



Belfasteko Queen's Unibertsitateko QUILL zentroan sortu dute perfumea.

Hizketaren bidez alzheimerra detektatu nahian

2014an EHUko ikerlari Nora Barrosoren ahotik entzun genuen etorkizunean posible izango dela, agian, hizketaren analisia eginez hainbat gaixotasun detektatzea. Ildo horretan, orain gutxi ELEKIN ikertaldea sortu da. Hainbat saio pilotu egin ondoren, ikerketa bide onetik doala frogatzeko bidean daude.

ttiki.com/338413
(Euskaraz)

Meteorito erraldoi baten aztarnak Australian

Orain 66 milioi urte gaurko Mexikon jo zuen meteoritoak dinosauroak eta beste hainbat espezie desagertzea eragin zuen. Berriki, ikerlariak beste erraldoi baten erorketaren aztarnak aurkitu dituzte Australian. Inpaktuaren ondorioz sortutako kraterrak ia 400 kilometro diametroa du.

ttiki.com/338414
(Gaztelaniaz)

Hartzak goiz esnatu dira Errusian

Errusiako Sakhalin eta Kurilek irletako hartz arreak beste batzuetan baino lehenago esnatu dira. Aurtengo negua epela izan da eta martxoan euriak elurrari lekua kendu dionez, hartzak ohi baino hilabete erdi lehenago hasi dira mugitzen. Goseak amorratzen esnatu dira, gainera.

ttiki.com/338415
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Enkriptatze perfektua: lagunek ere ezin ulertu



Espainiako Errege-erregina Katolikoek posta-trukearen isilpekotasuna bermatzeko testuen zifratze sistema bat ezarri zuten. Ezin esan arrakasta izan zuenik.

INGALATERRA, 1495. Espainiako Errege-erregina Katolikoek Rodrigo Gonzalez de la Puebla (c. 1450-1525) diplomazialaria bidali zuten Londresko gortera, Katalina Aragoikoa-
ren –Isabel eta Fernandoren alaba– eta Ingalaterrako erregegai Arturoren arteko ezkontza negoziatzen zezan.

De la Pueblaren ahaleginak sei urte geroago eman zuen fruitua. 1601ean ezkondu ziren Katalina eta Arturo, baina senarra handik bost hilabetera hil zen. Katalina hildakoaren anaiarekin ezkondu zen orduan, Henrike VIII.a guztiz ezagunarekin. Gerora, Katalinarengandik banantzeko, Eliza Katolikoarekin hautsi eta Eliza Anglikanoa sortuko zuen Henrikek, baina hori beste kontu bat da.

Errege-erregina Katolikoek eta haien diplomazialariek ezin zuten aurreikusirik ondoren gertatuko zena, baina bazekiten halakoak gai arantzatsuak zirela, garrantzi handikoak, eta informazioa ahal zen neurrian ezkutan atxikitzea ezinbestekoa zela, etsaien begietatik urrun behintzat.

Errege-erreginak oso kezkatuta zeuden horrekin, Europa osoan zeuzkaten agenteei bidaltzen zizkieten mezuetako asko etsaiek bidean atzeman eta inolako arazorik gabe irakurtzen baitzituzten. Horregatik posta-trukean enkriptatze sistema bat ezartzeko agindua eman zuten. Zifratze sistema sinplea zen teoriarik, hitzak zenbaki erromatarrez ordeztu

katzean zetzana. Praktikan, ordea, errege-erreginen espionatza zerbitzuak gehiegi korapilatu zuen metodoa. Hala, sistemaren helburu nagusia lortu zuten: etsaiek ezin zituzten mezuek irakurri. Baina arazo berri bat eragin zuten: mezuen hartzaileek ere ez, gehienetan.

Esaterako, “itsasoa” (*mar*) idazteko MCCCCLXXXVIII zenbakia erabiltzen zuten, baina “*en*” preposizioarako DCCCCLXVIII erabili behar zuten, eta “*el*” artikulurako DCCCXXXIX. Horrenbestez, besterik gabe “itsasoa” esateko DCCCCLXVIII DCCCXXXIX MCCCCLXXXVIII idatzi behar zuten.

Posta-trukea zeharo nahasi eta mantsotu zuen sistemak, “ez da ulertzen”, “ez du zentzurik”, “bidali mezu argiagoak” eta halakoetan denbora erruz galtzen baitzen.

Rodrigo Gonzalez de la Pueblak ez zuen nahi bere misioa gaitzultzetan gal zedin. Horregatik, Katalina eta Arturoren arteko ezkontza negoziatzeko berri emateko Errege-erregina Katolikoek idatzi zirenean, arazoari konponbide erabat eraginkorra eman zion: gutuna monarkek erabakitako sisteman zifratuta joan zen, baina harekin batera sistemak erabiltzen zituen kodeen liburuxka atxikita bidali zuen. Hala, edozein hartzaile mezua erraz transkribatzeko gai izango zen. Mezuek bidean atzematen zituzten etsaiek ere bai, jakina. ■

Arrastoak

Nondik datoz futboleko txartel hori eta gorriak?

KENNETH ASTON arbitro britainiarri Ingalaterra eta Argentinaren arteko partida nahasia epaitzea egokitu zitzaion 1966ko Futboleko Munduko Kopan. Partida amaitu eta, etxean zegoenez –txapelketa Ingalaterran jokatu zen–, bere autoa gidatuz irten zen epailea estadiotik. Semaforo batean gelditu zenean, semaforoen kodea futbolari ere aplikatu zekiokeela bururatu zitzaion.

Hau da, kolore horia ez zen nahikoa izango arau-hauslea egotzeko, eta jokalaria ohartarazita geratuko zen; semaforo gorriak autoen ibilia geldiarazten duen moduan, txartel gorriak arau-hauslearen jokoa etengo zuen, eta zelaitik egotziko zuten berehala.

Handik gutxira ideia FIFA-ra helarazi zuen, eta federazioak hurrengo Munduko Kopan jarri zuen martxan Astonen txartel sistema. Txartel hori eta gorriak 1970eko Mexikoko Kopan erabili zituzten lehenengoz. ■



RONNIE McDONALD-CC BY

ANNA GABRIEL SABATÉ

«Independentzia soilik izango da posible CIU gabe»

Militantzia ardura anitzak izan ditu Anna Gabriel Sabaté (1975, Sallent, Bartzelona): lehen Correllenguaren (Korrikaren ahizpa katalana) antolatzailea, Terra i Llibertat kolektiboko kidea sorreratik, zinegotzia, CUPEko idazkari orokorra, Endavat-eko kidea, "Independentzia, guztia aldatzeko" kanpainaren eledun... Egun Parlament-ean dihardu CUP taldeko koordinatzaile gisa. Euskal Herrian ezohikoa zaigun doinu libertarioa dario bere independentismoari.

Testua eta argazkia:

| AXIER LOPEZ RODRIGUEZ |



Askapena talde internazionalistak gonbidatuta, otsailean Altsasun, Zarautzen eta Arrasaten hitzaldi bana eman zuen Sabaté.

Zer da Kataluniako Printzerriko prozesuak utzi dizuen onena?

Une garrantzitsuetan eta mobilizazioetan egotea. Aspalditik lehendabiziko aldiz hitz egin ahal izan dugu nahi dugun herrialdeari buruz, osotasunez eta ez soilik egitura politiko-

ari buruz. Garai historiko honen tentsioak bizitzeak irakaspen handiak eman dizkigu; etsaiak zeinen indartsuak izan daitezkeen ikasi dugu. Eta etsaiak, pluralean, diot. Nahiko genuke bat eta bakarra izango balitz.

Goizean poliziarekin ostiaka eta arratsan Barne sailburuaren eskutik helduta?

Guk ez dugu bat egin inoiz sailburuarekin eta bere alderdi politikoa-rekin. ERC, Iniciativa eta CIUekin, a priori, helburu bat partekatzen

dugu: erabakitzeke eskubidea gauzatu eta katalanek adierazi ahal izatea. Bide horretan asmo bera dugu, baina batasuna ez da era abstraktuan existitzen. Ez da batasun akritikoa. Gure borrokarako grina, salaketa, kritika eta protesta maila mantentzen ditugu. Bestela ez zatekeen posible izango-eta.

Egun berean, goizean, kontsulta legeari buruzko batzordean galdeketa gauzatu ahal izateko testua buruz buru lantzen egon gaitezke, eta arratsaldean, Poliziaren gomazko piloten aurkako manifestazioan ikusiko gaituzu. Garai hauetan horixe da egunerokotasuna.

Parlamentuan sartu zarete lehen aldiz. Hauteskundeetan parte-hartzeari buruzko eztabaida behin betiko itxi al du horrek?

Gomendagarria da hauteskunde guztien aurretik eztabaida egotea. Sakon hausnartu behar dira egoera, testuingurua, indarrak eta, batez ere, zein den hauteskunde bakoitzera aurkezteko helburua. Esan gabe doa denok ez garela iritzi berekoak. Batzuek pentsatzen dute hauteskundeetan presente egoteko baldintzak ez direla epe motz eta ertainean aldatuko. Hauteskundeetan aurkezteko baiezkoa berresteko besterik ez bada ere —gehiengo batek oso garbi duelako— eztabaida ematea guztiz gomendagarria izango da.

Herri mugimendua eta botere instituzionala. Mahai beraren bi aldeak, baina zeinek aukeratzen du menua?

Menua herri mugimenduak osatu behar du beti; ordezkariak instituzionala haren isla izan behar du, eta ez alderantziz. Antolatutako jendea ordezkatzan dugu instituzioetan, ez beste inor. Suminduek gu ordezkatzan gaituzte, gu ez gara haien ordezkariak. Horixe da gure logika. Adibidez, Barne Saileko batzordeetan, Escuadra Mossoek gomazko pilotak erabiltzea debekatu zuen komisiok gure parte-hartzeak, ekarpenak eta ondorioak erreprezioaren aurkako arloan aritzen diren taldeek sortu zituzten. Diskurtsoa eta eztabaida aurretik emanda badaude guk ez dugu ezer sortzen; gure egitekoa da horiek erakunde

Komunikazioaren esparrua Katalunian

Egungo politika, polizia eta kartzela ereduak koloreak atera dizkio 4F kasuak, eta lehen lerrora ekarri du kazetaritza independentearen beharra.

Gai hau sarri albo batera utzi dute ezkerreko mugimenduek; “Kontrainformazio egunkariaren kontuaz arduratuko dira gure lau militante kazetariak, hori kontrolatzen dutenez, zeozer sortuko dute”, esanaz bigarren plano batean laga izan da komunikazioaren borroka.

Fedearen izenean gauza asko egiten dugu egunero arlo askotan eta komunikazioaren esparruan ere egin beharra daukagu. *La Directa* hasi zenean—oso oker ez banago 4. harpideduna naiz, David Fernandez baino lehenago! (barrez)— ez genekien proiektua ea ondo ala gaizki joango ote zen, baina beharrezkoa zela ziur ginen. 9 urte eta gero Ester Quintanaren kasuarengatik (Escuadra Mossoek jaurtitako pilotakada batek begia suntsitu zion 2012an) jende askok ezagutu zituen *La Directa*ren balioak eta onurak. Harpidedunen igoera nabarmena eragin zuen kasu horrek, eta 4Frekin (Ciutat Morta dokumentalaren haritik sortutakoa) berdindatu da; berriz ere gora. Gehienak memento jakin batean jabetu dira horrelako proiektu komunikatiboen garrantziaz, baina militanteok lehendabiziko minututik oso garbi

izan behar dugu haren baliagarritasuna. Une on eta txarretan proiektua sustatuko duen baldintzarik gabeko jarraitzaile leialen koltxoirik gabe nekez mantenduko dira-eta.

4F kasuari buruzko dokumentalak TV3n ikustea lortu izana ezin da azaldu *La Directa*ren lana kontuan hartu barik. Jatorrian ez daude sare sozialak, Twitter, ezta CUPEk Parlamentuan egindako galdera ere; hori gertatu zen ikerketa kazetaritzara dedikatutako jendea dagoelako. Gaitasun handiko kideak dira, kazetaritzaren inguruko ikusmolde paregabea dutenak. Haiek ez dute inoiz lan egingo euren buruaren jabe eta independenteak ez diren komunikabideentzat; egun prekaritate handiz jarduten badira ere. Jende horri zor handia diogu.

Eta TV3?

Kataluniako etapa demokratiko berri honetan telebista publikoa eduki izanak begi-bistakoak diren eragin positiboak izan ditu. TV3en ereduak, jakina, kritikagarria da eta asko hobetu daiteke, baina katalanez bakarrik egindako telebista izate hutsa, adibidez, oso positiboa da berez. Telebista kate hori botere nagusiaren logikaren mendekoa da, baina, hala eta guztiz ere, beste hedabide gehienek baino kalitate informatibo handiagoa eskaintzen du.

barnera eramatea eta defendatzea. Makineria horixe behar du izan, osterantzean, ez genuke ulertuko ordezkarien lana zein den, ahotsa nori ematen dioten, ezta nor ordezkatzan duten ere.

Zein da aldaketarako subjektua?

Zenbait talde politikok uste du independentzia CIUekin batera etorriko dela. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa diogu: independentzia soilik posible izango dela CIU barik. Arazoa haiekin ez dugu alderdi politiko gisa, CIUk ordezkatzan

duenagatik baizik: oligarkien eta burgesia propioaren interesak eta identitate eta kultura katalana ulertzeko era selektiboa, Herrialde Katalanak bere osotasunean alboratzen dituen.

Fronte patriotikoaren eztabaidak horrelako tentsioak sortzen ditu; eliteak, burgesiak, botere handiagoko eta bitarteko gehiago duenez, marko propioa eskuratzeko bidea laburragoa izango dela pentsatzea, alegia. Historiak oso argi erakutsi digu zein izan den haien rola une erabakigarrietan. Horregatik gutako



Quim Arrufat, Isabel Vallet, David Fernandez –CUPEko hiru parlamentariak– eta Anna Gabriel Sabaté. Guztiek kargua utziko dute maiatzean. Barne estatutuen arabera, CUPEko ordezkari publikoak gehienez 4 urtez aritu daitezkeelako. Liberatu guztien soldata ere araututa dute: 1.600 euro.

batzuk 1930eko hamarkadan esparru nazionala aldarrikatzen zuen CNT-tik gertuago sentitzen gara.

Feminista izango da, bestela aldaketarik ez da izango?

Kide feministek esaten duten moduan: “feminismoa beti hurrengo egunerako uzten da”. Azken katebegia. Postrearen azken ukitua. Eta azken ukitua baino ezinbesteko oinarritzko osagaia da. Oraindik asko dago egiteko bide horretan, emakumezkoak gizonezko kideen maila berean jartzeko baino harago; hori minimoa baita. Emakumeon bazterketaren logikatik sortzen den mundu ikuskera beharrezkoa zaigu. Pribilegiorik gabe, zigorrez betetako gorputz batean bizitzeak ematen dizun ikuspegiak aldaketarako motorra izan behar du. Baina, tira, borrokak eta helburuak hierarkizatzeko joera duen logika ere bada. “Lehenago estatua lortu, eta gero, ikusiko dugu zein den eredu sozioekonomikoa” ideia sinetsi eta eroso sentitzen denik ere bada; feminismoa amaieraren amaierarako uzten duen pentsaera da. Horren emaitza begi-bistakoa izan da, historia lekuko.

Udalgintzari buruzko eztabaidan erreferentzietako bat bilakatu da CUP.

CUPen udalgintza erdua esperientzia berezi xamarra da. Ez da bakarra, ezta onena ere. Bereztasuna da CUP hortik jaio zela. Gure estreina-

ko apustua udalgintzari begira izan zen eta denbora luzez hori izan zen gure errealitate bakarra. Militanteen artean, beraz, oso sustraituta dago herri mailako logika: inguruaren ezagutza zehatza, herriaren egoera, erronkak, ahulguneak, gaitasunak... errealitatearen egiazko argazkia zein den bilatzera ohituta gaude.

Herrialde Katalanetako udalgintza borrokalariaren sarea marraztu beharko banu, ez nituzke CUPEko nukleoak bakarrik jasoko, ezta CUPEk zinegotziak dituen lekuak ere. Mapa zabalagoa egingo nuke. Maila lokalean, herria eraldatzeko lanean ari direnak ere bilduko nituzke: kooperatibak, *casal*-ak (gune autogestionatuak), ateneoak, gazte mugimenduak, herri-kultura berreskuratzeko taldeak, lurraren defentsan ari direnak, eta abar. Hori litza-teke Kataluniako udalgintza. Guk auto-antolakuntzaren, elkartzearen eta herri batasunaren eraikuntzaren adierazpen horietan jartzen dugu enfasia. Horrek bizirik mantentzen du instituzioaren eta kalearen arteko tentsioa –zentzu positiboan ulertuta–, zinegotzien eta erakundeetatik at dauden hainbat militanten lanaren artekoa. Izan ere, zinegotziak beti askoz gutxiago dira “kanpoan” direnak baino. Horregatik bakarrik bada ere, dimentsioagatik, argi geratzen da praktika politikoan azentua non jarri behar den.

Antolatutako jendea ordezkatzeko instituzioetan, ez beste inor

“Madril, hiri-eredu gisa, ekintza terrorista da”, esan zidan behin Gaztelako lagun batek. Eta Bartzelona?

Jakina. Hain zuzen ere, Bartzelonako CUPEko kideen analisisia ildo beretik doa. Bartzelona ez dago Kataluniako beste edozein hirirekin konparatzerik hainbat arrazoiengatik: populazio dentsitatea, egitura ekonomikoa, hiriko eragileen izaera, eta abar. Oso dinamika oldarkorrek daude Udaletik harago; eragile ekonomiko eta politikoez, lobbyek, mafiosoek sortutakoak. Adibide batzuk jartzearen: Zer egin lobby

turistikoarekin? Escuadra Mossoekin? Nola kudeatu Bartzelonako Portua? Eta Graciako Pasealekua goraino bete eta luxuzko dendetan erosten duten 40.000 turistekin, itsasontziz asteburuero gurera heltzen diren horiekin, zer? Galdera potoloak dira horiek. Guk ez dugu egoera hori iraultzeko nahikoa indarrik, ezta Bartzelonako herritarrek ere. Gauza bat da kritikoa izatea, eta beste bat da horri aurre egiteko bitartekoen jabe izatea.

Oso adierazgarria da Alde Zaharrean hirigintza ardurak zituen zinegotzi baten kasua. Ciutat Bellako apartamentu turistikoaren lizentzien inguruan aritzen den mafiari aurre egiten saiatu zen. Mehatxuak, segimenduak eta bere ordenagailu pertsonalaren lapurreta susmagarriak jasan zituen. Horien presiopean, dimititu egin zuen. Hori alderdi sozialistaren izenean lan egiten zuen zinegotzi bati gertatu zitzaion orain gutxi. Beraz, zer gertatuko litzaiguke guri, ezker independentistako militantei, horren aurka borrokatuko bagina? Imajina dezaket...

Auzoetan oinarri sendoak sortu nahi ditugu. Bartzelonan, hala eta guztiz ere, auzoek identitatea eta funtzionatzeko era berezia dute gaur egun, metropolien eredu klasikotik aparte.

“Kasurik onenean, botere-egitura berdinak izango dituen estatu bat lortuko du Herrialde Katalanetako lautzatietako batek”. Ados al zaude esaldiarekin?

Hori izan da gure kontrapuntua prozesuan. Kataluniak Europako estatu modernoek kopiatu bat –jatorrizkoaren antza handiagoa ala txikiago izan– lortzea ez da nahikoa. Halere, gutako asko alai biziko lirateke egun dugun estatuaren antzeko batean, baina ‘gurea’ balitz. Zentzu horretan jende posibilista egon badago eta ilusioak ondorengo pentsatzera eramaten ditu: “burgesia ez da desagertuko eta militaritzen jarraitu behar dugu; baina eremu propio batean izango da”. Kontua horrela ikusita arrazoizkoa lirudike, baina jardun politikoan begirada internazionalista ez dugu galdu behar, bestela sistema kapitalistak eragiten duen miseria gorria ahaztuko dugu.



"Herri boterea eraikiz, behetik eta ezkerretik" izeneko hitzaldia eman zuen Sabaték Zarauzko Putzuzulo gaztetxean.

Kapitalismoak gosea, heriotza, suntsipena, gerra eta hobi komunak besterik ez ditu eskaintzen munduko zenbait lekurentzat. Egoera horren aurrean ezin gara marko nazional propioarekin konformatu, ezin dugu ahaztu gu hobeto bizi gaitezen munduan hiltzen ari den jendea. Begirada internazionalista galtzea jarrera berekoa eta kultura-zentrikoa iruditzen zait, gure independentismoa inoiz ordezkatu ez duen identitarismoz bete. Gu ez gara independentistak katalanak beste inor baino hobek garelako edo gure arbasoak XV. mendean hemen bizi zirelako. Gutako gehiengoa mestizoa da eta gure senideak Espainiako Estatuan jaio-takoak dira. Independentistak gara Espainiako Estatuarekiko gatazka oinarri demokratikoetan ulertzen dugulako, Espainiako Estatuak ez

dituelako demokraziaren minimoak errespetatzen. Ikuspegi horrek jarrera identitarioetatik aldendu eta laguntasunaren eta senidetasunaren logikan kokatzen zaitu.

Europar Batasunetik ateratzea babesten duen indar politiko bakarra zarete Katalunian. Alternatibarik ba al da?

Europar Batasunetik, eurotik eta NATOtik kanpo bizitza dagoela diogunean, jakitun gara gaur arte Ipar Konoan eta Europan inork ez duela lortu. Beraz, errespetuz esaten dugu, baina posible bihurtu daitekeela sinetsita gaude.

Gu geu bakarrik ez gara gai euroko eta EBko irteera diseinatzeko, baina gure herrian ildo horretan sakontzen ari den jendea dago eta haiekin joratu nahi dugu bide hori. Zentzu horretan, Taifa ekonomia

kritikoaren mintegiko lagunekin lanean ari gara. Haiek marxismoa berrirakurtzen ari dira, bera eguneratuz kapitalismoaren alternatiba integrala sortzeko. Zorraren Ikuskaritzaren aldeko Plataformarekin ere elkarlanean ari gara.

Gure aldarrikapena denok, eta ez gu bakarrik, hobeto bizitzearen aldekoa da. Eta horrek gu ezberdin bizitzeak eskatuko du. Austeritate dosi handiagoak—ez Troiakak proposatutakoak modukoak—ezarri, jabego pribatuaren rola eta ekoizpen-bideen jabegoa birplanteatuz, ekoizpen ereduak aztertuz... Langilearen etorkizuna jabego txikiak metatzea dela dioten posizio sozial-demokrata faltsuetatik aldentuta. Hori ez da iparra. Gure azken helburua bizitza duina da, nehoen zapalketaren errudunak ez garelako jakinda. ■

**Joxan ARTZEren poemak Bide Ertzean,
Asier Sarasola eta Oier Guillanen eskutik**

Apirilak 24, ostirala,
22:00tan Usurbilgo Sutegiko auditorian.

Joxan Artzeren liburuetan oinarritutako
poesia eta musika emanaldiaren GRABAZIOA

Antolatzaileak:



elkar

Babeslea:



NOLA BELZTU BEHAR ZURIA



DONOSTIAKO EUSKARA PLANA

Hiria auzorik auzo euskalduntzen

122.000 donostiar euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai dira 2011ko datuen arabera; biztanleen %70 inguru. Hala ere, gaitasuna izateak ez du erabilera ziurtatzen, donostiarren %16k soilik erabiltzen du euskara bere egunerokoan. Egoerari buelta eman eta euskara burutik mingainera igarotzeko asmoz, Euskararen Plan Orokor Berria egiten ari da Donostiako Udala.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

2015-2019 BITARTEAN indarrean egongo den euskara planari azken ukituak falta zaizkio. Plan berria metodologia erabat parte-hartzaile bidez osatu dutela esan du Nerea Txapartegi Udal Gobernuako euskara arduradunak. Donostian ere euskaraz bizi ahal izateko bermeak eskaintzea da asmoa.

Lau batzar ireki egin dituzte kolektibo eta norbanakoekin: besteak beste, Donostiako merkatariek eta ostalariek, auzo-herrietako bederatzi euskara batzordek eta Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartek hartu dute parte. Bertan, aurreko planaren gabeziak identifikatu eta proposamenak jaso dituzte.

Euskara planak hainbat adar hartzen ditu; hala nola, familia transmisioa, irakaskuntza, aisialdia, kultura, komunikabideak, auzoak, merkataritza eta ostalaritza, beste askoren artean.

Euskararen egoera nabarmen aldatzen da auzotik auzora, eta beraz, tokian tokiko beharrei aurre egiteko euskara batzordeak sortu dituzte Donostiako bederatzi auzo-herritan: Añorgan, Martutenen, Loiolako Erriberan, Intxaurren, Altzan, Bidebietan, Parte Zaharrean, Aieten eta Egian.

Herritarrek borondatez dihardute lanean euskara batzordeetan eta euskara zerbitzuak laguntzen ditu Bagera Elkartearen bitartez. Horietako asko, euskararen plan orokorraren barruan



“Donostia euskaraz betetzen” ekitaldia egin zuten martxoaren 28an. Hiritarrek lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten.

jaio dira. Dena den, euskara batzorde batzuk aurretik lanean hasiak zeuden, esaterako, Altxakoa eta Intxaurren-dokoa. Aieten aldiz, orain gutxi sortu dute. Egun, elkarren arteko saretzean dihardute.

Auzo-herriak ere euskaraz

Idoia Trenor Bagera elkarteko ordezkariaren ustez baloratzekoa

da Udalak euskara plana parte-hartze prozesu bidez gauzatzea: “Truditzen zait horretan gabiltzan eragile eta norbanakoak kontuan hartzea ezinbestekoa dela errealitatearekin kontaktua edukitzeko”. Euskara batzordeetako kideek ezin hobeto ezagutzen dute euren auzoetako errealitatea; hori dela eta, plan berria egiterakoan euren iritzia

aintzat hartzea ezinbestekoa da Trenorrenztat, azken finean, eurak baitira hein handi batean plana egitarituko dutenak.

Bagerako ordezkariak dio, parte-hartze prozesuan argi geratu dela donostiarrek euskaraz badakitela, baina ez dutela behar adina erabiltzen: “Euskararen erabilera handitzea lortu behar dugu euskara plan berriarekin eta auzoetako euskara batzordeekin”.

Arantxa Lakadena Aieteko euskara batzordeko kidea da, eta Euskararen Plan Orokor Berriaren partaidetza prozesua gertutik jarraitu du. Lakadena orain bi urte joan zen Aietera bizitzera eta aitortzen du hasieran lotarako auzo soiltzat zuela: “Ez genuen auzoan bizitzarik egiten ez genuelako inor ezagutzen. Horregatik, esaterako Olentzero ikustera gure lehengo auzoetara joaten ginen”. Pixkanaka, umeen bitartez auzoko jendearekin harremana izaten hasi dira Lakadena eta haren bikotekidea eta Bagera Elkartearen bitartez euskara batzorde bat sortu dute auzoan. “Aieten ere euskaldun asko bizi gara eta euskara batzordearen bitartez elkar ezagutu, eta auzo bizi eta euskalduna izatea lortu nahi dugu”, esan du Lakadena.

Intxaurrondoko euskara batzordeak berriz, urte mordoxka daramatza lanean. Mikel Urdangarin, Intxaurrondoko euskara batzordeko kideak ez du euskara planaren batzar irekietan parte hartu, baina begi onez ikusten du parte-hartze metodologia. Urdangarinek dio gaur egun ere Udalarekin eta Bage-

Lehen hitza euskaraz

EZ DA EZEREZETIK JAIO 2015-2019 Euskara Plan Orokor Berria. 2013ko uztaillean euskararen erabilerarako 5. Plana onartu zen; plan horren helburu nagusia herritar guztiei euskaraz artatuak izateko bermea eskaintzea da, bai eremu publikoan baita pribatuan ere.

Udalean ere euskaraz kanpaina abiatu zuten orain urtebete eta administrazioako langileek lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten. Urte bereko udazkenean, *Kaixo* kanpaina jarri zuten martxan Donostiako zortzi auzotako hamaika kale komertzialetan: *Dendan ere euskaraz*, *bemen ere euskaraz*, *tabernan ere euskaraz* bezalako errotuluak jarri zituzten dendetan eta tabernetan, gune horietan euskaraz egiten dutela jakinarazteko.

Aurten, martxoaren 11n, *Donostian ere euskaraz* kanpaina aurkeztu dute; administrazioan, merkataritzan, kultur azpiegiture-

tan eta kiroldegietan bezala, egunerokoan eta espazio publiko zein pribatu guztietan ere euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

“Dendara sartu eta horrelako errotulu bat ikusita lasai hasi zaitzake euskaraz hitz egiten, inongo estres linguistikorik gabe”, esan du Txapartegik. Izan ere, hark dioenez, euskararen erabilera sustatzeko lehen hitza euskaraz egitea ezinbestekoa da.

Egitasmoa establezimenduetako langileen erdiak bezeroa euskaraz artatzeko gai dira. Bestalde, merkataritza eta ostalaritza gune guztiak biltzen dituen mapa interaktiboa dago *Donostia euskaraz* atarian.

400 establezimendutik gora daude egitasmoan. Txapartegik dio oso pozik daudela emaitzarekin eta gero eta gehiago izatea espero dutela: “Dagoeneko Amara zaharrean, Antiguan, Ibaetan eta Igaran ari gara bisitak egiten”.

ra Elkartearekin elkarlanean hainbat egitasmo eramaten dituztela aurrera.

Hainbat ekintza antolatzen dituzte urte guztian zehar auzoko gainerrako eragileekin, esaterako, Korrika antolatzen hamahiru eragile hartu dute parte. Besteak beste, hitzaldiak, literatur lehiaketak eta erakusketak antolatzen dituzte, Intxaurrondon ere euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatzeko.

Euskara ahalik eta plaza gehienetara eramata da Bagera Elkartearen asmoa, eta horretarako Amara Berrian sortu duten elkarlan taldea azpimarratu du Trenorrek: “Amara Berrian oso talde indartsua sortu dute eragile bakoitzeko ordezkari banarekin. Hori da esentzia; mahai bat osatu eta eragile bakoitzak euskararen alde zer egingo duen azaltzea, horrela lan ildo komunak sortzeko”. ■



Liburu azoka

Amurrión, apirilaren 16tik 19ra Guk etorbidean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

JUAN HERNANDEZ ZUBIZARRETA

«Inpunitatearen arkitekturaren beste katebegi bat da TTIP»

Lanaren zuzenbidea irakasten du EHUn. STEE-EILAS sindikatuko kidea da Juan Hernandez Zubizarreta, eta transnazionalen boterearen aurkako nazioarteko talde batean parte hartzen du aspalditik. Azken hilabeteetan, *Euskal Herrian TTIPari ez!* kanpainaren talde eragilean dihardu buru-belarri. Itun transatlantikoaren barrunbe juridikoez galdetu diogu hain zuzen, haren kontrako borroka egunaren –apirilaren 18a– atarian.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Iñigo Azkona

Artikulu batean diozu TTIP inpunitatearen arkitekturaren atal bat dela. Zer da inpunitatearen arkitektura?

Zenbaitzuek modu horretan definitzen dugu korporazio transnazional handien boterea. Une honetan globalizazioak duen egitura juridikoa da. TTIP bezalako merkataritza aske eta inbertsio itunak, hitzarmen komertzialak eta abar –une honetan 3.500 inguru dira!– arau hertsagarriak dira.

Hau da, bete egiten dira. Eta hala da badagoelako horretaz arduratzen den nolabaiteko Ertzaintza global bat. Funts putre batek salaketa jartzen dio Argentinari New Yorkeko auzitegi batean, epaileak arrazoia ematen dio, eta argentinar ekonomiak kolpe latza jasotzen du. Beteazpen maila hori ez dago giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean. Giza eskubideen zuzenbidea ahula

da. Esaterako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen askatasun sindikal batzordeak behin eta berriro zigortu du Kolonbia sindikalisten hilketak direla eta. Esanahi moral handiko zigorra da, baina ez da betetzen. Zergatik dago gosea munduan? Horri buruzko arau juridikoak, hitzarmenak... ez direlako eraginkorrak, paper hutsa dira. Inbertsioaren eta merkataritzaren alorrean, berriz, arauak



bete egiten dira, betetzen direnez. TTIP tresneria horren beste katebegi bat besterik ez da.

Transnazionalen eskubideak babes-teko tresneria, azken batean?

Hala da. Benetako adibide bat ematearren: Argentinak Repsol kalera-tzen du, eta enpresak inpunitatearen arkitekturaren makineria juridiko osoa ipintzen du martxan. Bat, argentinak gobernuaren aurkako auzi eskea egiten du argentinak epaitegi batean. Bi, ebazpen auzitegi pribatu batean salaketa jartzen du –inpunitatearen arkitekturaren ezaugarrietako bat justiziaren pribatizazioa baita—. Hiru, New Yorkeko auzitegi batean salaketa jartzen du. Eta lau, Madrilgo epaitegi batean salaketa jartzen du. Hori guztia egin dezake Repsolek bere eskubideen defentsan. Aldiz, nora jo dezakete Repsolek deuseztatu nahi dituela salatu nahi duten maputxeek? Argentinako Gobernu-ra, besterik ez –eta Gobernua, maputxeci dagokienez, Repsolen konplizea da—; ezin dute Repsol salatu nazioarteko ebazpen auzitegi batean. Izan ere, Gobernuak berak ere ezin du; transnazionalak baino ezin dute epaitegi horietara jo.

Justiziaren pribatizazioa aipatu duzu. TTIPen aurka ari zaretenok diozue itun transatlantikoak justizia bakarrik ez, botere legegilea ere pribatizatuko duela.

TTIP hirugarren belaunaldiko nazioarteko ituna da. Lehen belaunaldikoek, klasikoek, aduana zergak kentzeko helburua zuten. Bigarren belaunaldikoek, horrez gain, ebazpen epaitegiak ekarri zituzten, hau

“TTIPek, lehendik ezarrita zegoen justiziaren pribatizazioa ez ezik, legegintzarena ere badakar”

da, justizia pribatua. Hirugarren belaunaldikoekin maila gorenera iritsiko gara: aurreko guztiaz gain, legegintza pribatizatzen da. TTIPen negoziatioetan, zehazki, erregulazio-kontseilu baten sorrera aurreikusten da; gaur egun existitzen den zein etorkizunean sor litekeen legediaren iragazki lana egingo du horrek.

Adibideren bat eman zenezake?

Demagun EH Bilduk Gipuzkoako Aldundiari eusten diola, eta kontratazio publikorako ezarritako klausula sozialak mantentzen dituela. Hori Aldundiaren eskumenen barruan dago. TTIPek sortutako erregulazio-kontseiluak araua aztertuko du, eta kontsultak egingo ditu. Kontsulta horietan denek hitz egin ahal izango dutela iragarri dute, baina badakigu hor lobbien ahotsa baizik ez dela entzungo. Eta lobbien iritzia izango da Gipuzkoako arau hori baztertzaila dela, inbertsioei traba egiten

“Europako Batzordea lortzen ari da TTIPen aurko jarrera leuntzea, babes estandarrik ahulduko ez dutela behin eta berriz esanez”

diela... Oker ez banago, klausula sozial horrek dio sektoreko hitzarmen kolektiboak errespetatu behar direla; AEBetako eraikuntza-enpresa handiek, berbarako, hauxe esango dute: nik ez daukat hitzarmen kolektiborik, arauak baztertu egiten nau!

Praktikan araua kentzea ekar lezake horrek?

Hara, pentsa ezazu zer nolako presioa jasan beharko duen Gipuzkoako Aldundiak, adibide berarekin jarraitzearen. Transnazionalen mehatxuak, xantaia...

Baina erregulazio-kontseiluak foru araua bertan behera uzteko gaitasuna edukiko luke?

Ez dakigu oraindik. Eurek diote araua TTIPi egokitzeko iragazki lana egingo dutela, hau da, kendu baino, aldatu. Eta Aldundiak ez aldatzea erabakitzen badu, gerta daiteke transnazionalak haren aurka jotzea araua kentzera behartzeko, edo Aldundia Luxenburgoko Auzitegian salatua izatea, maila hierarkiko altuagoko araua, hau da, TTIP, ez betetzeagatik.

Berez, zer da erregulazio-lankidetzaz?

Eurek diote legedien harmonizazioa dela. Benetan nahi dutena zera da, AEBetako produktu guztiak inolako oztoporik gabe sartu ahal izatea Europan, eta alderantziz. EBn indarrean dagoen zuhurtzia printzipioa, esaterako, oztopoa izan daiteke AEBetako transgenikoak edo klorodun oilaskoa sartzeko. Haien hordagoa da harmonizazio horren bidez ahalik eta araudiaren zati handiena apaltzea.



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



produktuen egiaztagiri bikoiztuak saihesteko. Primeran. Baina beraiek esaten dute TTIPi esker ez dakit zenbateko hazkunde ekonomikoa izango dela, BPGrena, familia bakoitzarena... eta aipatu ditudan hiru gauza horiek ez dira nahikoa hazkunde hori esplikatzen. Segurtasuna homogeneizatzea, gestioak arintzea eta egiaztagiri bikoitzak kentzea negozio bolumen osoaren oso zati txikia dira. Bestelako alderdi batzuk hartu dituzte kontuan aurreikuspen ekonomiko horiek egitean.

Zer alderdi?

Estandarrak ahultzea, hain zuzen. Oso argigarria da europar ordezkariak esaten

duen zerbait: negozio aukera handiak egongo direla—eta hori egia da—Europako eraikuntza-enpresentzat. AEBetako estatu askotako kontratazio publiko arauetan badago Buy America izeneko klausula bat, kanpoko enpresei atea ixten diena, eta EBk dio TTIPen bidez klausula hori ezabatzeko ahaleginean ari direla. Horrek lanpostu asko sortuko lituzke Europan, eta abar. Ederto. Baina nork sinetsiko du AEBek Buy America klausula kentzea onartuko dutela, besterik gabe segurtasuna homogeneizatzearen, gestioak arintzearen eta egiaztagiri bikoitza kentzearen truke? Europako Batzordeko kideei hori galdetu eta ez entzunarena egiten dute. Argi dago Buy America ezabatzearen ordaina AEBetako okela, transgenikoak, frackinga eta abar sartzea dela, zuhurtzia printzipioa kentzea dela...

Baina europar aldeak hitz eman du hori ez dela gertatuko.

Azkarrak dira, eta ituna sinatzeko eguna hurbildu ahala hasiko dira esaten: “Ez gara gezurretan aritu”. Nire ustez, emango duten argudioetako bat da beraiek negoziatioetara era-

man dituzten agirietan posizio batzuk defendatu dituztela, baina gero gauza batzuetan amore ematea beste irtenbiderik eduki ez dutela—kontuan izan behar da estatubaitarren posizioez ez dakigula ezer, ez dute dokumentu bat bera ere erakutsi—. Aurrekoan, Europako Alderdi Popularreko buruari galdetu zioten AEBetako kosmetikoez [EBn milaka substantzia debekatuta daude produktu kosmetikoetan, AEBetan oso-oso gutxi], eta esan zuen Europak ez duela araurik urratuko, baina edozelan—nik uste dut nahi gabe ihes egin ziola—badaudela erdibideak. Eta etiketatzeaz hitz egin zuen. Nire hipotesi bat da etiketatzea izan daitekeela aitzakia zuhurtzia printzipioa urratzeko, aldi berean zuhurtzia printzipioaren muina errespetatu dela esanez. Etiketa batek, letra txikian, “produktu hau estatubatuarra da eta ez dakit zer arazo sor dezakeen ez dakit zer osagai du” esaten badu, kontsumitzailearen esku uzten dute ardura. Beste bide bat izan daiteke—hori ere nire hipotesi bat da—ituna nahasi samarra izatea, eta eten-gabe interpretazioa behar izatea.

Apirilaren 18an TTIPen aurkako borroka eguna izango da Europa osoan. Zer giro dago?

Uste dut Europako Batzordea inteligentzia handiz ari dela jokatzeko TTIPen defentsan, behin eta berriz errepikatuz dagoeneko esan duguna: ez dela babes estandarrik ahulduko. Errepikaren errepikaz itunaren aurkako jarrera neurri batean leuntzea lortzen ari direla iruditzen zait. Nahasmena eragiten dute, behintzat.

Benetan dago aukera gizarte zibilak TTIP geldiarazteko?

Zaila da, haien tresneria izugarria da. Beharbada lortuko dugu TTIPen edukia urardotzea, baina ni ikaritzen nauena itunen arteko loturak dira: TTIP, TISA, CETA... Etengabeko negoziatioaren estrategia da, beti daukate hurrengo urratsa prest. Hala ere, beldurgarria da ez dagoela, geoestrategiaren ikuspuntutik, eredu horren aurkako alternatibarik. Ezkerreko ahots batzuek diote Txina dela alternatiba, baina Txina ere AEBen logika kapitalistaren barruan dago: hazkundera, lehiakortasuna... ■

Ez dago inon idatzita, ordea, araudia ahultzea denik helburua. Izan ere, EB ordezkatzuz negoziatioetan parte hartzen ari direnek behin eta berriro adierazi dute itunak ez duela ekarriko europar estandarren beherapenik herritarren eskubideei, osasunari edota ingurumenari dagokienez. Zergatik egiten da interpretazio hori TTIPen aurkako sektoreetan?

Lehenik eta behin, beste itun batzuen adibideak hala erakutsi digulako. Bigarrenik, badakigu, eta beraiek ere onartu dute, ez direla ituna negoziatzen muga-zergak kentzeko bakarrik, berez nahiko txikiak dira eta. Orduan, zertarako? Bada zerbait gehiago: erregulazioa. Egia da, zuk diozunez, babes estandarrek ez ukitzeko hitza eman dutela. Baina iruzur egiten ari dira.

Zelan?

Batetik, galdetu izan diegu zer arlo harmonizatzeko asmoa duten Europako araudi babeslea ukitu gabe, eta esan dute: batetik, autoetako segurtasun-neurriak homogeneizatzea; bestetik, enpresa ertain eta txikiei kudeaketa errazteko; hirugarrenik,

Mediku euskalduna eskatu nahi eta ez dakizu nola? Berdin elkarteak lagunduko dizu

HAINBAT OSASUN LANGILE eta erabiltzaile dira Berdin elkartearen sortzaileak. Osasun arreta euskaraz jasotzeko eskubidea ardatz delarik, herritarrek euskararen erabilera urratsak ematera adoretzeko baliabideak eskura jarriko dituzte elkarteko kideek. Berdin elkarteak apirilaren 28an aurkeztuko dute Durangon.

Elkarteko kideen ustez, osasun arreta eta hizkuntza banaezinak dira. Hala, kalitatezko osasun arreta pazientearen lehentasunezko hizkuntzan eskaini behar da. Hizkuntza guztietan ezinezkoa bada ere, EAE-n ofizialak diren hizkuntzetan aritzea bermatu behar dela uste dute.

Begi-bistakoa da osasungintzako zerbitzu guztietan ez dagoela arreta euskaraz bermatuta, eta

elkartearen helburua herritarren eskubidea bete dadin presio egitea da. Aitor Montes da elkartearen sortzaileetako bat, eta berak sarri esan izan du, osasungintzan euskarazko arreta eskatzea zaila egiten zaiela euskaltzaleei; batetik, pazienteak sarri kezkatuta eta urduri doalako medikuarenagana osasun arazoak tarteko, eta bestetik, osasungintzako barne egiturak konplexuak dira eta funtzionamendu mekanismoak ulertzea ez da batere erraza.

Horregatik, elkarteak osasun arloko profesionalak eta osasun zerbitzuen erabiltzaileak harremanetan jarri nahi ditu, eta herritarrei informazioa eta aholkularitza eskaini nahi dizkie euskaraz artatuak izateko eskubidea aldarrikatu dezaten.



Asteburu oparoa izango da apirilaren 18 eta 19koa. Larunbatean Euskal Herrian Euskarazek Euskaraz Bizi Eguna ospatuko du Otxandion. Igandean berriz, euskaraz bizi eta ikasteko eskubidea aldarrikatzeko jaia antolatu du Sortzenek Faltzesen.



EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

TTIP, gure eskubideei mehatxuka

APIRILAREN 18AN hainbat mobilizazio egingo da TTIPen kontrako borroka eguna dela-eta, baita Euskal Herrian ere, gure funtsezko eskubide sozialak eta ingurumena mehatxatzen baititu. Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena delakoa –ingelesezko akronimoa TTIP da–, AEB eta Europaren artean negoziatzen ari diren tratatua da, bi lurralde horien arteko “inbertsioa eta merkataritza handitzeko, esplotatu gabe dagoen merkatu transatlantiar potentziala errealitate bihurtzeko eta aukera ekonomiko berriak sortzeko, enplegua eta hazkundeak sortuz, merkaturako sarbidea hobetuz, araudia bateratuz eta munduko arauen norabidea markatuz”.

Akordioa iluntasun handiz ari dira negoziatzen, ezkutatu nahian baitabilte egiaz AEBek inposatu nahi dutena: merkataritza eta inbertsio harremanak desarautzea, European bere filosofia zabaltzeko. Hala, finantza, industria eta politika gidatzen duten botere gehiago izango dute. Azken batean, AEBek bilatzen dutena da lan eskubideak murriztea,

izan ere Lanaren Nazioarteko Erakundearen zortzi hitzarmenetatik bi baino ez ditu sinatu gobernu estatubatuarrak. Lan ordezkarietarako eskubidea mugatu eta soldatak jaitsi nahi ditu, baita zerbitzu publikoak eta Justizia pribatizatu ere, inbertsioetan sortutako auziak arbitraje pribatuaren esku utziz. Ingurumenari dagokionez, akordioak transgenikoen sarrera erraztuko luke eta frackinga erabiltzeko debekuak ezabatu, Euskal Herriko zenbait tokitan mugimendu sozialek lortutakoa, alegia. Horrek berebiziko garrantzia izango du gure nekazaritzarako eta ingurumenerako.

Ez bada lortzen geratzea AEBek inposatu nahi duen gizartearen eta ingurumenaren kontrako dinamika, gure eskubideen hurbileko etorkizuna hilgarria izango da. Ea herritarrek gainera datorkigunaz jabetzen diren. Kontzientzia hori sortzeko, berriz, mugimendu sozialek, sindikatuek eta politikariek erantzukizun handia dute.

Juan Mari Arregi

Nork hil zuen Dag Hammarskjold NBEren burua?

1961eko irailaren 18an Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusi Dag Hammarskjold zeraman hegazkina lehertu zen gaur Zambia den eremuan, Kongo independizatu berriko barne gerra nola geldiarazi negoziatzera zihoala. “Istripu misteriotsu” gelditu zena ikertzea erabaki du NBEk, benetan eraso militarra izan zelakoan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

IMAJINATU BAN KI-MOON IRAK aldera doala hango gatazka korapilatsua baretzeko asmoz bertako liderrekin elkarrizketatzera eta Nazio Batuen Erakundearen lider nagusia daraman hegazkina tirokatuta lurreratzen dutela.

Tamaina horretako magnizidioa zen gertatu 1961eko irailaren 18an Kongoko gatazkaren erdian, gaur erretretan izateko adinean diren irakurleak agian oroituiko direnez. Hala ere, Dag Hammarskjold izenaren berririk ez dauka XXI. mendeko herritar jantzi gazteak, harekin haserre omen zegoen Joseph F. Kennedyren hilketaz mila erreportaje ikusi eta Marylin Monroek oheratzekoan zein perfume maite zuen ikasia duenak.

Mende erdi beranduago ezagutuko dugu Hammarskjold. Eta NBEk idazkari nagusi 1953tik 1961era arte eduki zuen diplomatiko suediarren akabera argitzen bada, Afrikako deskolonizazio prozesuaren zenbait xehetasun deseroso azaleratu daiteke 54 urte geroago. Potentzia handiek Afrikako lehengaiak kontrolatzeko egindako gerra eta klase guztietako ahaleginak, alegia.

Dag Hammarskjoldek bi gatazka multzo handi kudeatu behar izan zituen NBEren buruzagitzatik. Alde batetik AEBen eta Sobiet Batasunaren arteko Gerra Hotzak

eragindako tentsioak. Bestetik, Europako potentziek Afrikan eta Asian zeuzkaten kolonien askapen prozesuak. Hauen artean bat oso konplikatu, Belgikak kontrolatzen zuen Kongorena.

1960an, formalki independentzia eskuratuta eta estatu gisako egiturak antolatze ahaleginetan murgildurik zebiltzan Kongoko buruzagi eta indar politiko ezberdinak, hiriburu-tzat lehengo Leopoldville gero Kinshasa bilakatu zekana —ez nahastu ibaiaz beste aldeko Kongorekin, hiri nagusi Brazzaville daukanarekin—. Belgikako metropolia-ekin adostutako agendaren arabera, Kongoko lehen ministro gazte eta karismatikoa zen Patrice Lumumba ezkertiarra, Herrialde Ez Alineatuen mugimenduaren buruzagi ezaguna ere bazena.

Baina Belgikako indarren laguntzarekin Kongoko hegoaldean Katangako errepublika aldarrikatu zuen Moise Tshonbek. Eta herrialde sortu berria borroka odoltsuetan murgildurik zegoen: kolono zurien eta hauen ondasunak berenganatu nahi zituzten beltzen arteko tirabirak, Katangako errepublikaren aldekoak, Kinshasako aginte eta indar berrien arteko liskarrak...

Osagai berdintsuak ikusi dira, neurri ezberdinetan, Afrikako garai hartako askapen prozesuetan, Alje-

*Los Angeles Times*en artxiboetako argazkian, ezkerretan Patrice Lumumba eta eskuinean Dag Hammarskjold. 1960ko uztailaren 25ekoa da. Urte horren bukaeran Joseph Desire Mobutuk bota zuen boteretik Lumumba, ondoren bere etsairik handiena zuen Moise Tshonberi entregatzeko; honek torturatu eta hilko zuen 1961eko urtarrilean. Irailan eroriko zen Hammarskjold idazkari nagusia. Lumumba mitikoa akabatuta gero ere Tshonbek guduka segitzen zuen Katangatik, Mendebaldeko potentzien —batez ere belgikarren— babesarekin eta haiek bidalitako mertzenarioen laguntzarekin. Zenbait dokumentaziok erakutsi du Tshonbe prest zegoela Hammarskjoldek proposatu su-etena onartzeko, baina britainiarrek eginarazi ziotela atzera. Katangako mertzenarioen kontra Hammarskjoldek erabakitako *Morthor* operazioak biziki haserrarazi zituen britainiarrak bezala Joseph F. Kennedy amerikarra.

rian esaterako, baina baita askoz geroago ere Angolan edo Mozambiken Gerra Hotzaren akabera aldean, edo berriro ere Kongon duela gutxi.

Azkenean AEB eta Europako potentziek lortu zuten Lumumba 1960 amaieran agintetik kentzea, gero Afrikako diktadurarik luzeena ezarriko zuen Joseph Desire Mobutu sarjentua botean paratuz. Honek, torturatu ostein, Lumumba entregatu zion Moise Tshonberi, zeinak gehiago torturatu eta fusilatu baitzuen, ondoren Lumumbaren arrasto guztiak desagertarazteko.

Katangarekin menia prestatzera

Katangako gerrak zalaparta handia eragiten zuen bere sarrasakiekin 1960 haietan; zerbaitengatik eman zitzaien *Katanga* ezizena etorkinez betetako auzoei Hernanin bezala Iruñean eta munduko beste hiri askotan. Agintean Mobutu jarriagatik Tshonbek segitzen zuen Katangatik gerran Kinshasako gobernuaren kontra. Hasiera hartan sobietarren alde jokatzeko zuen Mobutuk, Mendebaldeko potentzien eta meatzetako korporazio handien alde Tshonbek.

Katangako matxinoarekin irtenbide negoziatu bat lotzera abiatua zen 1961eko irailaren 17an NBEren idazkari nagusia. Lau motoreko



bere hegazkina lurrera erori zen arte sutan Ndola hiritik gertu.

Egia ofizialtzat geratu den arren Hammarskjold eta SE-BDY matrikuladun Douglas DC-6 haren 16 eskifaia istripuz hil zirela, politikariaren memoria zaintzen duen fundazioak eta zenbait ikerlarik jarraitu dute mende erdi honetan gertakizunaren xehetasunetan arakatzen.

Londresko unibertsitatean irakasten duen Susan Williamsek 2011n plazaratu zuen anitz argitasun *“Who Killed Hammarskjöld?”* liburuan. Bertan bi lekuko oso bereziren oroitzapenak bildu zituen, AEBetako inteligentzia zerbitzueta-ko bi agenterenak.

Gaur 80 urte dauzkan Charles Southall Zipren zegoen egun haie-

tan irratizko mezuen jarraipena egiten. Hegazkin bateko ahotsa grabatu zuen: “Ikusten dut garraiozko hegazkin bat iristen. Argiak piztuta dakartza. Bai, Transair DC-6 bat da. Hori da hegazkina”. Ondoren tiro hotsak eta: “Jo dut. Sutan doa. Erortzen ari da. Lehertu da”. Henry Abramek, gaur 73 urte, Greziako amerikanoek Heraklionen zeukaten kasernatik jarraitu zuen eszena bera.

Baina Susan Willimansen lana bezain garrantzitsua izan da Goran Bjorkdahl suediarrek egindakoa. Kooperazio zerbitzueta lan egiten eskualde hartan ibilitako aita piztu zion Hammarskjolden kasua ikertzeko harra. Lekuan bertan aireplanoa sutan erortzen ikusitako

lekukoen xehetasunez gain, Bjorkdahlek bestelako informazioak ere bildu ditu, gertatuaren testuingurua hobeto azaltzen laguntzen dutenak.

Funtsean Bjorkdahlek zera demostratu du: Hammarskjolden hegazkina beste batek tirokatu zuela, militar ingelesek oztopatu egin zutela istripuaren ikerlana, hegazkineko eskifai bat bizirik atera zutela baina hiltzen utzi, Hammarskjoldek susmatzen zuela diplomatiko britainiarrek saboteatu nahi zutela Tshonberekin lortzeaz zen su etena, eta NBERen idazkari orokorrak berak hil aurretik baimendua zuela Katangako mertzenarioen kontrako eraso bat kasko urdinek eginga, nahiz eta horrekin haserrarazi AEB eta Britainia Handiko agintariak.

Hari hauei guztiei tiraka, 2011ko abuztuaren *The Guardian* egunkariko Julian Borger eta Georgina Smith-ek ustezko istripua gertatu zen Ndola herrian aurkitu zituzten dena bertatik ikusi zuten lekukoak. Bitxia iruditu arren, 1961eko ikerketan istripua pilotuak trakets jokatu zuelako gertatu zela erabaki zutenek ez baitzieten bertako baserritarrei galdetu kazetariak aipatzen duten Goran Bjorkdahl iritsi arte.

*The Guardian*ek 2011n izen abizenaz aipatu zituen hegazkina tirokatu eta sutan erortzen ikusi zuten laborari ikazkinak: Dickson Mbewe, Custon Chipoya, Safeli Mulenga, John Ngongo... 50 urtez ez zien inork ezer galdetu. Kongok lurpean mineral gehiegi zeukan gorderik. Hala dauka oraindik. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Perez, Barkos edo Araiz, edozein ona

HAUTESKUNDEETAKO lasterke-
ta betean gaude jada eta sinplifika-
zioan erortzeko arriskuari eutsiz,
euskal lurretako panorama oroko-
rra halakoa litzateke alderdiei begi-
ra: batzuk maldan beherakoari
nola eutsi ari dira –PP, PSOE,
UPN–; besteak gehiengoak nola
indartu pentsatzen –EAJ, Bildu–;
eta berrienak –Podemos, Geroa
Bai, Ciudadanos– aurreikuspen
oparoei nola eutsi amesten.

Instituzioei so eginez, Nafarro-
akoa da egoerarik goriena, azken
hiru hamarkadetan lehenbiziz
UPN eta PSNrik gabeko gober-
nua osatzeko aukera egiazkoa
delako. Aldaketa esaten diote
horri, eta hala gertatuz gero alda-
keta instituzional itzela litzateke,
baina ez hain handia Nafarroako
gizarte osoari begira, besterik gabe
gizartean norabide aldaketa suma-
tzeko denbora behar izaten dela-
ko. Aldaketa izatekotan ere, erregi-
meneko indarrak oso ahaltsuak
direlako oraindik eta instituzioei
kontrabotere lana egiteko duten
tresneria ugaria eta indartsua dela-
ko. Egoera desberdinak diren
arren, galdetu Martin Garitano
edo Juan Karlos Izagirreri, edo
beste maila batean Alexis Tsiprasi.

Oso kontuan hartzekoa da,
aldaketa pentsatu baino txikiagoa
izan litekeela, besteak beste, akaso
erregimen zaharreko tresna izan
den PSN ere aldaketaren hanketa-
ko bat izan daitekeelako. Ez daki-
gu nork irabaziko duen eta nork
galdu eta, beraz, esperimentu
berrietarako aukerarik egongo den
ere. Herritarrak alderdiei eman
behar die botoa aldaketarako eta
gainera norabide berria abiarazte-
ko giltzarri dira, baina alderdiekiko
mesfidantza da herritarrak duen
sentimendu naturalena, batetik

haien betaurrekoak motzerako
direlako eta, bestetik, esperien-
tziak edozertarako gai direla dios-
kulako. Ea herritarrek eskatutako
mailari eusteko gai diren.

Edozer dela ere, aldaketa egarri
dagoen gizarte esparruarentzat
garrantzitsuenak UPNk gobernu
berria ez gidatzea litzateke. Ez da
erraza Laura Perez, Uxue Barkos
edo Adolfo Araiz Nafarroako
Gobernuko lehendakaritza irudi-
katzea, baina egiazko aldaketaren
aukerak horiek dira eta horietako
edozein litzateke iraultza sinboli-
koa egungo Nafarroan. Emaitzek
eta haien abileziak esango dute.

*Ez da erraza Laura
Perez, Uxue Barkos edo
Adolfo Araiz
Nafarroako Gobernuko
lehendakaritza
irudikatzea, baina
egiazko aldaketaren
aukerak horiek dira*

UPN, PSN, PPN eta Ciudada-
nosen blokeak ere irabaz dezake.
Hots, betikoak. Orduan beti geldit-
uko da Iparraldera begiratzea,
han indar abertzaleek azken
hamarkadetan egindako lana arre-
taz jarraitzea, hangoak erakusten
duelako bazterketaren eremuetan
eta gutxiengo gorrian izanda ere,
lan egiten tematzeak bere fruituak
ematen dituela gerora. Beti geldit-
uko da jarraitzea, gizarte justuago
baten lan horri ametsetik, lanetik
eta gozamenetik bakarrik hel
dakiokeelako, bestela jai.

EAE-N argazkia finkoagoa da teo-
rian. EAJren eta EH Bilduren blo-
keek sendo jarraitzen dute eta

PSE-EEren eta PPren egoera
estua da oraindik. Azken hautes-
kundeetako joeran ez dute burua
altxatu eta oraingo aurreikuspenak
ere ez dira onenak.

Galdera ikur nagusia Podemos
da. Inkesta guztiek emaitza oso
onak iragarri dizkiote eta hainbat
gobernu aukera erabakitzeke ahal-
mena ere bai. PSEtik elikatuko da?
Bildutik? Denetik apur bat? Anda-
luziak pista batzuk eman ditu,
baina ez dira baliagarriak hemen-
go egoerarako. Baliatuko du Pode-
mosek bere indarra edo Roberto
Uriarte idazkari nagusiak iragarri
moduan, oposizio bilakatuko da
irabazle izan ezean? Gaitza da ezer
esatea emaitzak ikusi arte. Badaki-
guna da hemen ere Madrilek asko
agintzen duela.

Bizkaian EAJk ez bide du
arazo handirik izango gobernu
lanetan jarraitzeko, Gipuzkoan
EAJ eta EH Bilduren arteko lehia
itzela da eta Araban izan daiteke
aldaketarik handiena: PP, EAJ,
Podemos eta EH Bilduren artean
da lehia. EAEko instituzio asko-
tan, PSEk oposizio gordina edo
EAJren makulu izatea erabaki
beharko du, eta makuluarena ez
da gozoa, baina oposizio gordi-
nean baino epelago egoten da.
EAJren eta PSEren arteko azken
bi urteetako akordioek erakusten
dute aukerarik bada elkarrekin
aritutako direla. ETarik gabeko
eszenatokian, EH Bildu-PSEren
elkarlanaz ere asko hitz egin zen,
baina denbora pasatu ahala
batzuen eta besteen politikek
gero eta gaitzago egiten dute
aukera hori.

Edozein modutan, ez da zalan-
tzarik azken urteetako hauteskun-
de bizi, interesgarri eta erabakiga-
rrienetakoak izango direla. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat

[f]arina



**[F]ARINA
JATETXEA**

2 pertsonentzako
afari bat

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea)
Vitoria-Gasteiz ARABA

www.farinarestaurante.com

1



**Donostiako
Aquariuma**

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

MIKEL STROGOFF
JULES VERNE

KARLOS ZABALA



**MIKEL
STROGOFF**

JULES VERNE
KARLOS ZABALA

2 liburu opari

www.elkar.com

4



**Argia
kamiseta**

Kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2455. Argia)

LAR ZALDIAK

Andone Barandiaran Arratibel (Pasaia)

ARTIUM

Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
Isabel Etxeberria Ramirez (Astigarraga)
Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

SAN TELMO

Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
Ander Epelde (Soraluze)
Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

BARTOSZ

Stee-Eilas (Gasteiz)
Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
Ana M. Zubiarremerteria Olañeta (Eibar)
Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)

ILLIMANI

Arantxa Irulegi Garmendia (Zumaia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz
Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko jakin behar duzuna

Urte osoa baratzean

Baratze bakoitzak mundu bat da. Tokia, lurraldea, noiz begira gurea dugun txikiak eragin izugarria dauka. Ondorioz, urteko larren laburpen hau, hasierako hurbiltze xumeta baten jaso. Horien onak duzu zeure baratzearen egutegia. Eta kango eta aparteko barazkien sasoia. Euskal Herri atariak hozt handirik egiten, eta berrak eta lehorte zakarrak ere. Eta o

erein

urtarrila

Apioa, Baba, Baratzela (buratzela eta berritarako), Iarra, Maltua.

otsaila

Apioa, Baba, Baratzela (berritarako), Erremolapa, Iarra, Maltua, Patata (goizeko), Urta, Zerba.

martxoa

Alberjia, Anguria, Baratzela (berritarako), Borra, Brokoli (goizeko), Erremolapa, Iarra, Maltua, Patata (goizeko), Urta, Zerba.

apirila

Alberjia, Anguria, Apioa, Artoa, Azal, Azalora (goizeko), Azarria, Borra, Brokoli (goizeko), Erremolapa, Iarra, Maltua, Patata (goizeko), Urta, Zerba.

maiatza

Apioa, Artoa, Aza (goizeko), Azalora (goizeko), Azarria, Borra, Brokoli (goizeko), Erremolapa, Iarra, Maltua, Patata (goizeko), Urta, Zerba.

Xitaxinak:
Zure oinazeak emendatzen dire
denbora Khanbiotan.
Ihargi berria edo ihargi berria
denen

"Lehenagoko eskualdunak zer ziren",
1889
Mixel Elizburu

AZENARIOA

Daucus carota sativa, sativa

Euskal Herrian, mendian dugu azenarioa basako, *Daucus carota*. Berez, urte baxen hazi eta sustraiekin erreserbak pilatzeko gaitasuna du. Hain bizkar hurrengo urtean loratuko da. Mediterraneo ekialdean, Handik, Asia aldetik arabiarrek ekarri zituzten eta hurrengo batrena iritsi ziren Europako mendebaldera. Ingalaterran eta Frantziako solnekoak eta sustraia, hostoak, loreak... Karagarriko aldaera aukera dugu, gaur egun, eta urte osan azenario freskoa izan dezakegu baratzean. Kolore askotako sustraia dituzten azenarioak daude: moreak, gorriak, larriak, horiak, laranja, zuria...

Dinarriko premiak

Lur sakona nahi du, herriak gabekoa eta urak itozten ez duten lurak ez ditu maila. Beroa gatzaren zikloak, ahal izateko gero egutegian iren. Lurra ongi prestatu: hondare edo maitasun erasot, ondutako simetria eta karea edo errautsa. Ez da nitrogeno zaila, eta fosforo baina pozasoa hartzen du. Hori dela, erren baina lehen, Lurak harro egon behar du, hurrez erasotzeko moduan, Lur zakarra edo harritsu badiugu sustraia maza boroaleko aldiak erabili. Landareak tiki denbora bertan bertan kentzea garrantzitsua da. Behin haren denbora bera hostoak atera eta, lura estali eta kontza egingo die. Urtariletan ez alaitu.

Noiz zer lan

Ardatz txurako sustraia nagusi bat duten landare gutxiak berrak, azenarioa ez da aldatzen. Erein egiten da, bakan, arin eren.



Baratzearen erren edo aldatu aurretik mendikatu bat egin behar da, hezetzen ari den erren egitea da helburua: simar zarpau eta plantaz 60 cm-ko diametroa eta 50 cm-ko erren (3-4 hazi) edo aldatu. Bakoitzaren bi landare gertatu dira.

Aukera lehorago bat eman nahi baxko, arbatu. Hasi den haziak edo lantza jarri landareen inguruan, berrak gungu eta ura gehiago izango du ematen mende egingo die, baina saso horre edo erren baxko baxko landare egosi ere. Inazulak fruitu hobekak hartzen ditu: 3-4 hosto bi aldatu hurrengo hostoaren gainean kinatu. Hura gainera kinatu. Fruitu hartzen dutenen hurrengo bi ditu landare bakoitzak.

Uzta

Meluzak heldutasunera iritsi diren jaten dira. Haziaren koka dagoen arn zarpau eta aldaera lotzen dituzten berrak lehen hasten da eta erasotzeko da, adarra haurri gibe. Adarra boroaleko erasotzeko jaso daitzeko heldu aurretik bildu eta loki puztu baxekin jaso behar da, ebakitu, ez irakitu ke.

Gaitzak eta izurritzak

Landare txikiak baxo eta barazkiletekin baxatu. Gaitzak, sustraia eta lura hezezi egotearen ondorioz erortzen dituzte. Zorriak ere aldatu daitzeko.

Nor norekin

Aldatu berrak, tartek baliatzen, azkar etorri diren landare txikiak jar daitzeko: errefus, espinaka, ura...

TRIKIMAILUAK

Hazia baratzean bertan egiten badugu, plastikozko botila edo ontzi baten inguridirekin estali, berrak eta laguntzeko.

Loreak eraldatu eta fruituak hartzeko arri: ordu askoko egun lurrek behar ditu. Berez ekin-ustaltzean landareak hazia eta mardul behar du.

Giro kasikarrek egunetan (bero handia eta lehorta, euria...) polinizazioa eratzeko lore arri hartu, baxian dituzten petaloak kendu eta erdian duen isipn edo pintzel tenkerakoarekin lore erasotzeko.

Lurra, Ura eta Argia

Landare txikiak baxo eta barazkiletekin baxatu. Gaitzak, sustraia eta lura hezezi egotearen ondorioz erortzen dituzte. Zorriak ere aldatu daitzeko.

Ongarriak

Landare nondik nora sortu

Belar fin bikainak

Hiztegia

... eta askoz gehiago

Jakoba Errekondok
ARGIAREN eskutik
argitaratuko duen liburua
LASTER eskuragarri

argia

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA